

Botere korporatiboa eraisteko alternatibak

Gobernu, mugimendu eta herritarrentzako gomendioak

Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate

Cuadernos de Trabajo / Lan-Koadernoak / Working papers • Hegoa, Ale berezia, 2016

Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional



Consejo de Redacción

Director: Patxi Zabalo
Secretaría: Mari José Martínez
Tesorería: Eduardo Bidaurratzaga
Vocales: Elena Martínez Tola
Irantzu Mendia Azkue
Gloria Guzmán Orellana
Amaia Guerrero

Consejo Editorial

Alberto Acosta. FLACSO, Quito (Ecuador)
Iñaki Bárcena. Parte Hartuz, UPV/EHU
Roberto Bermejo. UPV/EHU
Carlos Berzosa. Universidad Complutense de Madrid
Cristina Carrasco. Universidad de Barcelona
Manuela de Paz. Universidad de Huelva
Alfonso Dubois. Hegoa, UPV/EHU
Caterina García Segura. Universidad Pompeu Fabra
Eduardo Gudynas. CLAES, Montevideo (Uruguay)
Begoña Gutiérrez. Universidad de Zaragoza
Yayo Herrero. Ecologistas en Acción
Mertxe Larrañaga. Hegoa, UPV/EHU
Carmen Magallón. Fundación Seminario de Investigación para la Paz
Carlos Oya. School of Oriental and African Studies, University of London (Reino Unido)
María Oianguren. Gernika Gogoratuz
Jenny Pearce. London School of Economics, LSE (Reino Unido)
Itziar Ruiz-Giménez. Universidad Autónoma de Madrid
Bob Sutcliffe. Hegoa, UPV/EHU
José M^a Tortosa. Universidad de Alicante
Koldo Unceta Satrústegui. Hegoa, UPV/EHU

La revista *Cuadernos de Trabajo/Lan Koadernoak Hegoa* es una publicación periódica editada desde 1989 por Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, y consagrada a los estudios de desarrollo. Con una perspectiva inter y multidisciplinar, publica estudios que sean resultado de una investigación original, empírica o teórica, sobre una amplia gama de aspectos relativos a las problemáticas, marcos analíticos y actuaciones en el campo del desarrollo humano y de la cooperación transformadora.

Cuadernos de Trabajo/Lan Koadernoak Hegoa es una revista con carácter monográfico, que aparece tres veces al año y dedica cada número a un trabajo, con una extensión mayor a la habitual en los artículos de otras revistas. Disponible en formato electrónico en la página web de Hegoa (<http://www.hegoa.ehu.es>).

Botere korporatiboa eraisteko alternatibak. Gobernu, mugimendu eta herritarrentzako gomendioak

Autoría: Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate
Cuadernos de Trabajo/Lan-koadernoak Hegoa • Ale berezia • 2016
Depósito Legal: Bi-1473-91
Traductor: Belaxe itzulpen zerbitzua
ISSN: 1130-9962
EISSN: 2340-3187



www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU. Edificio Zubiria Etxea
Avenida Lehendakari Agirre, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Fax: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Centro Carlos Santamaría.
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel. 943 01 74 64
Fax: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Biblioteca del Campus de Álava
Apartado 138
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. / Fax: 945 01 42 87
hegoa@ehu.es

Diseño y Maquetación: Marra, S.L.

Todos los artículos publicados en *Cuadernos de Trabajo Hegoa* se editan bajo la siguiente Licencia Creative Commons



Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España. Licencia completa:
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Financiado por:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Esta publicación
está indexada en:



Botere korporatiboa eraisteko alternatibak Gobernu, mugimendu eta herritarrentzako gomendioak

Gonzalo Fernández Ortiz de Zárate, Euskadiko Bakea eta Duintasuna elkarteko koordinatzailea eta Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiko (OMAL) ikertzailea da. Erakunde horietan, botere korporatiboen aurkako alternatibei buruzko azterketa-lerroa dinamizatzen du. Ildo horretan, zenbait argitalpenen arduraduna da; besteak beste, *Botere korporatiboaren aurkako alternatibak*, *Enpresa transnazionaleri aurre egiteko trantsizio-agenda baterako 20 proposamen* liburua idatzi du, eta EHUren Lan Harremanak aldizkariaren 33. zenbakiaren, *Enpresa transnazionalen boterearekiko erresistentzia eta bestelako proposamenak*, koeditorea izan da.



Harrera: 02-11-2016
Onarpena: 28-11-2016

Resumen

Nunca antes las empresas transnacionales habían estado tan presentes en prácticamente todos los ámbitos de nuestras vidas. Su incidencia económica, cultural, política y jurídica es tal, que incluso hablamos de poder corporativo como el protagonista del modelo hegemónico de sociedad global. Dicho modelo, articulado en torno al capitalismo, atraviesa en la actualidad una profunda crisis que pone en riesgo la propia sostenibilidad de la vida en el planeta. El conflicto entre el capital y la vida se agudiza y es preciso impulsar alternativas que trasciendan el *statu quo*, desmantelando al poder corporativo como condición necesaria –aunque no suficiente– para una transición civilizatoria desde claves emancipadoras.

El presente trabajo recoge una propuesta de marco de referencia para enfrentar esta tarea, así como una agenda con propuestas específicas en 20 ámbitos complementarios para avanzar en la misma. Estas se concretan finalmente en recomendaciones para diferentes agentes sociales e institucionales, dentro de una lógica inclusiva y de corresponsabilidad en defensa de la vida, la democracia, el bien común y la sostenibilidad.

Palabras clave: empresas transnacionales, poder corporativo, capital, alternativa, vida.

Laburpena

Inoiz baino gehiago, enpresa transnationalek presentzia nabarmena daukate gure bizitzetako esparru guztietan. Hainbestekoa da beraien eragin ekonomiko, kultural, politiko eta juridikoa, botere korporatiboa gizarte globalaren eredu hegemonikoaren protagonistatzat jo dezakegula. Eredu hau, kapitalismoaren inguruan artikulatutakoa, bizitzaren jasangarritasuna planetan arriskuan jartzen duen krisialdi sakon batetan dago murgilduta. Kapitala eta bizitzaren arteko gatazka areagotzen ari da, statu quo hau gainditzen duten alternatibak bultzatzea beharrezkoa bilakatzen delarik. Zeregin honetan, botere korporatiboaren eraispena beharrezko baldintza bezala agertzen zaigu -ez nahikoa, hala ere- emantzipazio-gakoak oinarri dituen zibilizazio-trantsizio baten bideari ekiteko.

Lan honek zeregin honi aurre egiteko erreferentzia-marko bat proposatzen du, urratsak egiteko elkarren artean osagarriak diren 20 esparrutarako proposamen zehatzak barneratzen dituen agenda batekin batera. Azkenik, hauek gizarte- eta instituzio-eragile desberdinei zuzendutako hainbat gomendiotan zehazten dira, bizitza, demokrazia, guztien ona eta jasangarritasuna defendatzea oinarri duen ko-ardurazko logika inklusibo baten baitan.

Gako-hitzak: enpresa transnacionalak, botere korporatiboa, kapitala, alternatiba, bizitza.

Abstract

Never before have transnational companies been so present in practically all spheres of our lives. Their economic, cultural, political and legal weight are such that we may speak of corporate power as the leading player in the hegemonic model of global society. This model, articulated around capitalism, is currently undergoing a severe crisis that jeopardises the very sustainability of life on the planet. The conflict between capital and life is becoming more acute and we need to promote alternatives to transcend the status quo, dismantling corporate power as a precondition (though insufficient in itself) for a civilising and emancipatory transition.

This paper offers a frame of reference for tackling this task, with an agenda of specific proposals in 20 complementary areas for taking a transition forward. Finally these are translated into recommendations for the various social and institutional agents, within a logic of inclusiveness and co-responsibility in defence of life, democracy, the common good and sustainability.

Keywords: transnational companies, corporate power, capital, alternative, life.

Aurkibidea

1. Botere korporatiboa egungo gizarte globalean	9
a. Kapitala bizitzaren aurka: aurrekaririk gabeko krisia	9
b. Kapitalaren aldeko agenda hegemonikoa	11
c. Botere korporatiboa, agenda hegemonikoaren protagonista	14
2. Botere korporatiboa eraisteko esparru-agenda bat	17
a. Botere korporatiboaren aurkako alternatibak, zer premisatan oinarrituta sustatu?	17
b. Zer etorkizunerantz bideratu botere korporatiboaren aurkako alternatibak?	20
c. Zer egin botere korporatiboa eraisteko?	24
3. Botere korporatiboa eraisteko gomendioak	33
a. Gomendioak estatuko gobernuentzat	34
b. Gomendioak tokiko gobernuentzat	38
c. Gomendioak mugimendu sozialentzat	41
d. Gomendioak herritarrentzat	43
4. Bibliografia	47

Kapitala balioztatzeko prozesuaren eta bizitzaren iraunkortasun-prozesuaren artean egiturazko kontraesan bat dagoela berresten dugu, eta, lehen prozesua nagusitzen den heinean, bigarrena arriskuan dagoela beti.

Amaia Pérez Orozco

Subversión feminista de la economía (2014)

XIX. mendearen amaieratik gaur egunera arte, kapitalismo globalaren bilakaerak finkatu eta indartu egin du enpresa transnazionalen munduko ekonomian duten zentralitatea, baita planetako bizitzako hainbat arlotan duten gero eta nagusitasun handiagoa ere. Batik bat azken lau hamarkadetan; izan ere, finantza-globalizazioko prozesuak eta politika neoliberalen hedapena funtsezkoak izan dira korporazio handiei mesede egin dien egitura ekonomiko, politiko, kultural eta juridiko konplexu bat eratzeko; hain zuzen, korporazio handiak dira egitura horren onuradun nagusiak.

Juan Hernández y Pedro Ramiro

Contra la 'lex mercatoria' (2015)

Larrialdien soziologia posibilitate zehatzen etorkizunean sartzen diren alternatibei buruzko ikerketa da. Jakintzak, jarduketak eta eragileak sinbolikoki handitzea da, etorkizuneko joerak (*oraindik gauzatu ez dena*) haietan hautemateko, joera haietan eragina izan baitezakegu, itxaropenaren probabilitatea frustrazioaren probabilitatearen aldean maximizatzeko. Handitze sinboliko hori irudimen soziologiko moduko bat da, bi helburu dituena: alde batetik, itxaropenaren probabilitate-baldintzak hobeto ezagutzea; beste batetik, baldintza horiek gauzatzen lagunduko duten ekintza-printzipioak zehaztea.

Boaventura De Sousa Santos

El milenio huérfano (2011)

1. Botere korporatiboa egungo gizarte globalean¹

Enpresa transnazionalak² oso zeregin garrantzitsua izan dute beti nazioartean. Gaur egun, ordea, aurrekaririk gabeko boterea daukate, igarotako beste edozein garaitan baino askoz handiagoa. Botere hori kapitalismoaren inguruan antolatutako gizarte globalaren eredu balio hegemonikoetatik (aurrerabidea, indibidualismoa, mugarik gabeko metaketa eta hazkundera, zientzia jakintza bakar gisa, gizakiak natura menderatzea, demokrazia liberal-ordezkarria) elikatzen da, eta balio horiek beraiek elikatzen ditu. Kapitalismoa, gaur egun, zibilizazio-dimentsioak dituen eta bizitzaren iraunkortasuna bera arriskuan jartzen ari den krisi batean dago. Beraz, lotura estua dago zibilizazio-proiektuaren, eredu globalaren eta botere korporatiboaren artean, bizitzaren eta kapitalaren arteko gatazka areagotu den testuinguru batean.

Kapitulu honetan, indar-idea hori xehatuko dugu. Lehenengo eta behin, azalduko dugu zergatik uste dugun une historiko kritiko batean gaudela, bereziki konplexua eta zalantzarria den egoera batean gaudela. Ondoren, azalduko dugu gure iritziz zer ikuspegiaren eta mugarriren bidez nahi duen betikotu agenda hegemonikoak, azken batean botere korporatiboak agenda horretan zer zeregin duen aztertzeko. Horrenbestez, eta botere korporatiboa agendaren subjektu nagusia dela ondorioztatuko denez, adieraziko dugu botere korporatiboa eraistea beharrezko baldintza dela bizitzaren aldeko bideetan zehar ibiltzeko, eta, bestelako zibilizazio-parametro batzuk ezarriz, kapitalak XXI. mende honetarako dituen apustuek aurrera egin dezaten eragozteko.

a. Kapitala bizitzaren aurka: aurrekaririk gabeko krisia

Indarrean dagoen zibilizazio-proiektuaren funtsa osatzen duten oinarriak (modernitate kapitalistaren balioak, lehenago aipatuak) krisian daude. Iritzi hori ez da airean eraikitako dorre bat, ez dago ikuspegi katastrofistetan edo nahiaren eta errealtatearen arteko nahastean oinarrituta. Aitzitik, *statu quo*ari atxikitako asimetria gero eta handiagoz (etikoki eta politikoki defendaezinak eta justifikaezinak) gain bereziki larriak eta garrantzitsuak diren bi fenomenori aurre egin behar diegulako egiaztapena da iritzi horren oinarria. Eta fenomeno horiek orainari eta iraganari buruz dugun pertzepzioa alda dezakete.

Alde batetik, kapitalismoak irauteko duen ahalmena zalantzan dago, eta zalantza hori gero eta hedatuago dago. Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak, ELGEk, 2060ra arte gutxienez hazkundera ahula izango dela iragartzen du (ELGERi "herrialde aberatsen kluba" ere deitzen zaio eta, beraz, ez dugu uste sistema ekonomikoaren osasunaren inguruko mesfidantza sortu nahi duenik); hain zuzen, hazkundera

-
- 1 Lan hau *Botere korporatiboaren aurkako alternatibak, Enpresa transnazionaleri aurre egiteko trantsizio-agenda baterako 20 proposamen* (Fernandez, 2016) liburuaren edukien laburpen bat eta aldi berean aurrerapen bat da. Laburpen bat da, liburuan jasotako ideia nagusiak laburbiltzen baititu, baina bada aurrerapen bat ere bai, botere korporatiboaren kontrako esparru-agendaren 20 proposamenak eta 90 neurri politikoak berrantolatzen baititu, zenbait eragilerentzat diren gomendioen arabera. Hortaz, eduki berei eusten die dokumentu honek, baina beste ikuspegi batetik, hain zuzen ere, ekimen eta proposamen zehatzak egiten baitie estatuko gobernuari, tokiko gobernuari, gizarte-mugimenduari eta herritarrei.
 - 2 Argitalpen honetan zehar, enpresa transnazional, multinazional, enpresa handi edo korporazio handi terminoak zentzu berarekin erabiliak ditugu. Edonola ere, honela definitzen ditugu: "jatorrizko enpresa batek herrialde jakin bateko legeen arabera eratutako enpresa-erakundeak, zuzeneko inbertsioen bidez beste herrialde batzuetan ezartzen direnak –tokiko sozietateak sortu gabe, edo herrialde ostalariko legediaren arabera sozietate bihurtzen diren filialen bidez–, eta zentro korporatibo batek zehaztutako estrategiari jarraitzen diotenak. Izan ere, zentro korporatibo horrek hartzen ditu erabaki nagusiak, hala nola produkzioari, instalazioen kokapenari, merkaturatzeari eta finantziarioari buruzkoak. Ezaugarri orokor horiekin lotuta, hainbat topologia daude: jarduera-sektore berean jarduten duten taldeak, askotariko jarduerak egiten dituzten taldeak, akzio-kapital bateratu batetik enpresak zuzentzen dituzten *holdingak*, etab" (Hernandez, Gonzalez eta Ramiro, 2012).

urteko % 3,6 ingurukoa izango da 2014-2030 denboraldian, eta urteko % 2,7koa, 2030-2060 denboraldian, sarrera-aldeak handiagoak izango diren esparru batean (OCDE, 2014). Hazkundera indarrean dagoen zibilizazio-proiektuaren baliorik handiena dela kontuan hartuta, sistemak bere barruko kontraesanak saihesteko dituen zailtasun handien (gaur egun areagotuen) adierazle bat baino ez da pronostiko hori. Hortaz, ez dirudi produktibitatearen, inbertsioaren, enpleguaren eta abarren beste hedatze-uhin bat gertatzeko baldintzak betetzen direnik, ezta gutxiagorik ere. Gainera, finantza-arloko desarauketa- eta gehiegizko konplexutasun-fase batean dago, eta, horretan, sortutako soberakin handia xurgatzeko eta zirkularazteko zailtasun nabarmenak daude (Harvey, 2012). Edonola ere, eta nahiz eta, historikoki izan duen dinamismoari erreparatuta, kapitalismoaren gainbehera iragartzea komeni ez, perspektibek erakusten dituzten joerek zalantzarik gabe adierazten dute egiturazko ezegonkortasun handia egongo dela, planetarentzat eta gehiengo sozialentzat oso ondorio txarrak izango dituen.

Bestalde, sistemak bere burua iraunarazteko duen ahalmenari buruzko zalantzak ebidentzia bihurtzen dira, Lurreko bizitzaren iraunkortasunarekiko bateraezintasunari dagokionez. Ildo horretan, klima- eta energia-testuinguruek agerian uzten dute mugagabeko hazkunderarekin eta energia-iturrien guztizko erabilgarritasunarekin lotutako mitoak funsgabeak direla, eta, azken batean, kapitalak, indarrean dagoen zibilizazio-proiektuaren ardatz egituratzailea den aldetik, bizitzari mehatxu egiten diola. Klima-aldaketari dagokionez, tenperatura globalak orain arte bezala igotzen jarraituko balu, 2050ean 3,5 °C altuagoa izango litzateke industriaurreko garaikoa baino (Bermejo eta Eguillor, 2015). Tenperaturaren igoera-fenomeno hori hasita dago. Haren ondorioak larriak dira dagoeneko, baina are larriagoak izan daitezke etorkizun hurbilean, pobrezia, lekualdaketei, ekosistemen aldaketari eta meteorologia-hondamendiei begira. Horri aurre egiteko, eta hainbat urtetako negoziazioen eta porroten (Kiotoko Protokoloa, 2009ko Kopenhageko Batzarra, etab.) ostean, 2015eko abenduaren 12an, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren Alderdien 21. Batzarraren (COP21) behin betiko akordioa aurkeztu zuten Parisen, hedabideen arreta paregabearen pean. Akordio horren helburua tenperaturaren gehienezko igoera 2 °C-koa izatea da, industriaurreko mailekin alderatuta; izan ere, muga desiragarri bat ere proposatzen da: 1,5 °C. Dena den, eta, 2016ko azaroaren 7an behin betiko berretsi ondoren, alderdien benetako konpromisoei buruzko zalantzak daude, ez baitute ia zerikusirik hasieran ezarritako helburuekin; hau da, agerian geratu da politikariek ez dutela leheneratzeko eta indarreko eredu ekonomikoa berriro pentsatzeko inolako borondaterik (Amigos de la Tierra, 2016).

Orobat, energia-testuinguruari dagokionez, bereziki bigarren mundu-gerratik gizarte globalaren proiektu hegemonikoaren oinarri izan diren baliabideak –batik bat, fosilak– agortzen ari direla ikusten dugu. Ildo horretan, petrolio konbentzionalak bere gaina jo du, eta gasak eta ikatzak mende honetako berrogeita hamarreko hamarkada amaitu aurretik joko dute, ziur asko; izan ere, Energiaren Nazioarteko Agentziak azaltzen du petrolioaren eta ikatzaren erauzketa-maximoa lortu dela dagoeneko (AIE, 2015). Baliabide horiek (batez ere, petrolio) ordezkaezinak dira, haien ezaugarriak direla eta: energia-dentsitate handia, askotariko erabilerak, garraio eta biltegiatze errazak, etengabeko erabilgarritasuna eta energia-itzulkinaren tasa handia. Ez dago urre beltzaren parekoa den ordezkari energetiko berriztagarri edo berriztaezinik, ezta energia horien konbinaziorik ere (Fernandez Duran eta Gonzalez, 2014). Ildo horretan:

Ekonomiaren esfera materialaren tamaina txikitzea ez da aukera bat. Petrolio eta mineralak agortzeak, klima-aldaketak eta natura-zikloen nahasmenduak horretara behartuko gaituzte. Nolanahi ere, Lurretik gutxiago erauziz eta hondakin gutxiago sortuz bizitzera egokitu beharko dugu gizakiok. Egokitzapen hori bi modutan lor daiteke: gero eta urriagoak diren baliabideak erabiltzeko borroka basatiaren bidez, ala zuzentasun-irizpideetan oinarritutako egokitze-prozesu ausart eta aldeztu aurretiko baten bidez (Riechmann et al, 2012:34).

Azken finean, une historiko erabakigarri batean gaude, kapitalismoaren iraupen-krisia, klima-aldaketa eta energia-testuingurua direla eta. Hartan, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka pil-pilean dago argi eta garbi, zibilizazio-printzipio bateraezinak baitira.

Kapitalismoa zibilizazio-krisi batean dago, Lurreko bizitza arriskuan jarri du, eta ez du aukerarik ematen ez gizakiontzat ez naturarentzat (Ceceña, 2010).

Beraz, ez gaude inertzien eta jarraitutasunen mendeko egoera batean, premiak eta zalantzak eragindako borroka handiko fase batean baizik. Borroka horretan, askotariko agendek dute nagusitasuna; derrigorrez, etorkizunean sumatzen den egoerara egokitu beharko dute agenda horiek. Ildo horretan, agenda hegemonikoak, hurrengo atalean ikusiko dugunez, kapitala eta indarreko zibilizazio-proiektuaren balioak defendatzen jarraituko du, gizakiontzat eta planetarentzat oso ondorio kaltegarriak badituzte ere. Orobat, beste proposamen boluntarista batzuk sortzen dira; adibidez, zenbaitek uste du garapen teknologikoak aukera eman dezakeela produkzio- eta kontsumo-ereduak aldatu gabe energia fosileko iturriak ordezkatzeko, eta badira kapitalismotik “elkarlaneko ekonomiara” (Mason, 2016) trantsizio endogeno eta progresiboa egin daitekeela sinetsita daudenak. Beste proposamen batzuk atzeragarri hutsak dira; esaterako, desberdintasunak, indarkeria eta askatasunen murriztapena areagotzea eragin dezaketen aukerak. Proposamen horiek guztiek, boluntaristek zein atzeragarriek, ez dute bizitza sendotasunez eta jarrera emantzipatzaileetan oinarrituta defendatzen.

Hain zuzen ere, hor bildu behar dira egoera zail honetatik ateratzeko ahaleginak, eta, ildo horretan, lehiari dauden agendak eta proposamenak desagerrarazi behar dira. Zibilizazio-proiektuak porrot egin du, eta harekin batera erortzea edo “hobeto porrot egitea” (Riechmann, 2013) beste aukerarik ez daukagu; hau da, gizarte globala beste oinarri batzuetatik birpentsatzea. Beraz, kapitalaren agenda hegemonikoari aurre egin behar zaio, egun indarrean daudenen kontrako balio emantzipatzaileak aintzat hartzen dituzten agenden bitartez.

Hori da kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazkaren ondorioz eta oso baldintza zehatzen pean sortzen den borroka handia. Horrenbestez, botere-asimetria handia dago, botere gehiena agenda hegemonikoaren esku baitago. Autoerreproduktzio-krisia eta planeta osoari egiten dion mehatxua gorabehera, indar handia eta legitimotasuna ditu oraindik ere agenda horrek; gainera, orain gauden une larria ez da oraindik sozialki begi-bistakoa. Halaber, agenden arteko gatazka konplexutasun eta ziurgabetasun handiko testuinguru batean ari da gertatzen, eta, egoera horretan, guzti-guztiori mugitu zaigu oin azpiko lurra. Batzuk zein besteak, kapitala defendatzen dutenak zein bizitzaren erreproduktzio handituaren alde daudenak, egoera berean daude. Egoera horretan, errealtate ekonomikoa korapilatsuegi dago, egoera politikoa subiranotasun lausotuz beteta dago, eta askotariko eskumen-esparruak eta eragileak ditu; baina, batik bat, baliabide fosil ordezkazekin agortzea saihetsezina da. Horrek guztiak ezinbestean aldatzen ditu joko-arauak, eta etorkizun hurbila nolakoa izango den aurreikustea zailtzen du. Ikus dezagun orain zeren alde egiten duen agenda hegemonikoak egoera horretan.

b. Kapitalaren aldeko agenda hegemonikoa

Kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazkan bizitzaren alde egiteko, garrantzitsua da, gauzatu beharreko zibilizazio-lanaren garrantziaz eta tamainaz ohartzeaz gain, gizarte globalaren eredu hegemonikoaren dinamika, joera, aldaketa eta ezaugarri nagusiak zein diren jakitea. Beraz, gure ikuspegi alternatiboan, epe luzeko egiturazko aldaketa eta epe motzeko diagnostiko eta proposamenak uztartu behar ditugu. Hortaz, erreproduktzeko eta etorkizunerantz proiektatzeko agendak erabiltzen duen ereduaz aztertu behar dugu, hari kontra egin ahal izateko.

Premisa horretan oinarrituta, garrantzi bereziko sei mugarri nabarmentzen ditugu, gure ustez gaur egungo, XXI. mendeko, agenda ekonomikoen bereizgarri direnak:



Iturria: Egileek egina.

- *Botere korporatiboa, agenda hegemonikoaren protagonista.* Hurrengo atalean, sistematikoki aztertuko dugu enpresa multinazionalak nola defendatzen dituzten gaur egun indarrean dauden zibilizazio-balioak, arlo ekonomikoan, kulturean, politikoan eta juridikoan. Orain, berriz, enpresa horiek balio horiek defendatzeko pribilegiozko egoera batean daudela adieraziko dugu. Horri esker, beren agenda erreferentzia hegemonikoa izatea lor dezakete. Eta, agenda horretan, bereziki nabarmena da mundu- eta eskualde-mailako beste merkataritza- eta inbertsio-hitzarmen batzuk egiteko apustua. Izan ere, hurrengo hamarkadetarako aurreikusitako hazkunde txikiak eta azken hamarkadan estatuak hegemonia transnazionalari jarritako oztopoak gutxitzeko beharrak bultzatuta, botere kooperatiboak inbertsioen segurtasun juridikoa finkatzeko proposamena egin du. Inbertsioak dira, hain zuzen, proposamen horren helburu nagusia, enpresek euren jarduera ekonomiko eskasaren onura ekonomikoak bereganatu nahi baitituzte hitzarmen berrien bidez –TPP, TTIP, CETA eta TISA³– (Zabalo, 2014). Oro har, hitzarmen horiek antzeko parametroak proposatzen dituzte –jakina, bakoitzaren espezifikotasun geografikoaren edo sektorialaren barruan–: bizitzaren eremu berriak pribatizatu ahal izatea; araudiak behetik bateratzea, hitzarmenak eragindako eskualdeetako gizarte- eta ingurumen-babesari dagokionez; arbitraje-auzitegi pribatuak inposatzea, korporazioen eta estatuen arteko desadostasunak konpontzeko; eta, azkenik, muga-zergak txikitu ahal izatea. Beraz, proiektu neoliberalaren beste ahalegin bat da, enpresa handiak lehen mailako eragile ekonomiko eta politiko gisa goraiatzeko.
- *Hegemonia lortzeko borroka geopolitiko.* Agenda globala, merkataritza- eta inbertsio-hitzarmenetan oinarritua eta botere korporatiboak bultzatua, munduan hegemonia lortzeko borroka-testuinguru batean ere badago. Gaur egun, hegemonia hori ez da nazio-estatuaren ezaugarrietan oinarritzen. Askotariko eragile estrategikoak (haietatik, korporazio handiak nabarmentzen dira) estatu baten inguruan antolatzean lortzen da. Estatu horrek munduan nagusitasuna lortzen lagunduko dioten sareak sortzen ditu, enpresa- eta erakunde-jardueraren bidez (Ornelas, 2010). Askotariko eta partekatutako subiranotasunen egoera horretan, AEBen eta Txinaren –eta jatorriko etxea herrialde horietan duten enpresa transnazional nagusien– arteko borroka geopolitiko nabarmentzen da bereziki. Munduko *hegemón* izaera lortzeko, bi alde horien arteko borrokan, lurraldeak eta baliabideak –energia fosila, ura, lurra, elikadura, etab.– kontrolatzea da lehentasuna. Kontuan izan beharra dago baliabide horiek eskasak direla eta agortzen ari direla, behintzat, gaur egungo gehiegikeria kontsumistarentzat. Hortaz, kapitalen arteko lehia (lurraldeak eta ondasun komunak kontrolatzeko) agenda hegemonikoaren mugarri nagusietako bat da, eta hurrengo hamarkadetako borroka politikoaren nondik norakoak adieraziko ditu.

3 Hurrenez hurren: Ozeano Bareaz Bestaldeko Tratatu, Merkataritza eta Inbertsio Hitzarmen Transatlantiko, Kanadaren eta Europaren arteko Merkataritza Hitzarmena, eta Zerbitzuei buruzko Merkataritza Hitzarmena.

- *Ekonomiaren finantzarizazioa.* Korapilatsuegia den eta araurik ez duen finantza-sistema batek ere eragina izango du XXI. mendeko kapitalismoan eta haren agendan. Lehenago aipatu denez, hazkunde ekonomikoaren itxaropen orokorrak ez dira batere onak, beste hedatze-uhin luze baten ondorioz. Ildo horretan, oso litekeena da kapitalak, irabaziak lortzeko, finantza-bideak erabiltzen jarraitzea, baita erabilera horretan sakontzea ere. Beraz, produktibitatean eta irabazi-tasan hazkunde orokorrak lortzen laguntzen duten oinarriak finkatu ezean, zorpetze publikoa eta pribatua garrantzi handikoa izango da oraindik ere, eta, bien bitartean, finantzarizazioaren ezaugarriak eredu ekonomikoan ezarriko dira. Alegia, epe laburreko ikuspegia, gobernaezintasuna, lukurua eta espekulazioa izango dira etorkizun hurbileko egoera zehaztuko duten kontzeptuak, eta, ziur asko, egiturazko ezegonkortasuna eta gizarte-asimetriak areagotzea eragingo dute (Blyth, 2014).
- *Bazterketaren mugen lekualdaketa.* Proiektu modernizatzaileak mugak ezarri ditu beti; hots, nor den, nork ahal duen, nork dakien eta nork ez zehazteko ardatz gisa hartzen ziren lerro abisalak. Hortaz, nor den eskubidearen, ezagutzaren eta eraldaketaren subjektua, eta nor ez. Azken batean, sistemaren iritziak nork merezi duen ikusgaien edo ikusezinen kategoria, giza izakiaren edo gizapetiko izakiaren kategoria. Lerro horiek historikoki zehaztu dira koloniekiko, hegoalde globalarekiko, Ekialdearekiko, Naturarekiko. Gaur egun, ordea, lerro horiek birkonfiguratu egin dira krisiarekin eta globalizazio neoliberalaren aurrerapenarekin batera; izan ere, metropoli-gizartearen barruraino ere hedatu dira. Gero eta gizarte-maila gehiagori ematen zaie baztertuen estatusa, legezko existentzia ukatuz. Ildo horretan, logika koloniala zabaldu egiten da, eta, apurka-apurka, gero eta pertsona gehiago baztertzen ditu. Gizarte-erregulazioari uko egiten dioten eta zerbitzuak pribatizatzen dituzten zeharkako gobernuen bidez egiten du, faxismo sozialeko logikak lehenetsiz. Logika horietan, botere-harreman oso desberdinen erregimen bat ezartzen da, alderik indartsuenari alde ahulenaren bizitzaren eta mantenuaren gaineko beto-boterea ematen diona (Santos, 2014). Hortaz, badirudi eskubideak dituzten herritarren eta berdintasunaren kontakizunak balioa galtzen duela, eta agenda hegemonikoak bere sustrai baztertzailaren gordintasuna eskaintzen digula.
- *Indarkeria egiturazko baliabide gisa.* Krisi sistemikoaren eta bazterketaren testuinguru honetan, modernitate kapitalistaren indarkeria esponentzialki ugaltzen da eta beste zenbait modutan azaltzen da. Horrenbestez, indarkeriak izaera koloniala du, argi eta garbi. Logika horren pean, gatazka geopolitikoak areagotu egiten dira, gerra eta inbasioen, eta estatu-kolpe klasikoaren eta berrien bidez. Baina, gainera, indarkeriak izaera heteropatriarkal nabarmena du. Zentzu horretan, bereziki aipagarriak dira emakumeen gorputzen kontra eragindako indarkeria-mota guztiak (feminizidioa da indarkeria horren adierazpenik muturrekoena, baina ez da bakarra, ezta hurrik ere, besteak beste eraso fisiko, sinboliko eta kulturalak uztartzen dituen patroien batean), eta, horrez gain, nabarmendu behar da hegemonikoaz bestelakoak diren sexu-identitateen kontrako gorroto-delituak ugaritu egin direla. Azkenik, botere korporatiboak protagonismoa lortu ahala, indarkeria-mota berriak erabiltzen dira, orain arte ezagutu ez direnak; esate baterako, segurtasun-enpresek eta armada pribatuek eragiten dutena, eta erakunde publikoetatik kanpoko lurralde-artxipelagoetan probatzen dena (Ceceña, 2016). Indarkeria-sorta oso zabala da: Guantanamo esperientzia alegalak; kontrol pribatu hutsaren pean dauden eremuak, hala nola Hondurasko eredu-hiriak; bizikidetzak-kondominioak; eta legez kanpoko ekonomia-sareek zuzenean okupatutako lurralde zabala. Elkarrekiko indarkeriaren *modus operandi* da, baina, testuinguru larri honetan eta pribatizatutako operadore berrien parte-hartzearekin, areagotu egiten da.
- *Demokraziaren kontrako erasoaldi kapitalista.* Aurreko bost mugarri horiek zalantzan jartzen dituzte modernitate kapitalistaren proiektu politikoaren oinarri demokratikoak, berez balioa lehenago galdutakoak. Ildo horretan, globalizazio neoliberalak nazio-estatuarekin lotutako subiranotasun eta herritartasun kontzeptuak aldatu ditu, erabaki estrategikoak nazioz gairik eremuera eraman baititu; alegia, subjektu subirano zehatzik ez duten eta enpresa transnazionalen eragin handia jaso dezaketen eremuera. Baina, egun, herritarren gehiengoak erabakiak hartzeko prozesuetatik urruntzeko dinamika hori areagotzen ari da, botere korporatiboak eraginda. Hazkunde-itxaropen txikien eta borroka politikoaren testuinguru honetan, botere korporatiboak zalantzan jartzen ditu erakundeek politika publikoak arautzeko eta garatzeko dituzten ahalmenak, baita txikiak ere, baldin eta politika horien bidez merkatuak mugatu eta kapitala erreproduzitzea eragotzi nahi bada. Tratatu berriek eta borroka geopolitikoak demokrazia liberal eta ordezkagarriaren kontrako beste erasoaldi baztertzaila eta gogor bat dakarte. Zuzeneko eta partaidetzazko demokraziaren esperientziak geldiarazteaz gain,

beste helburu bat dago: gobernuak proposamen politikoak beren kabuz garatzeko duten ahalmena murriztea. Horrenbestez, kapitalak izaera diktatoriala duela eta demokraziaren kontrakoa dela agerian geratzen da; argi eta garbi uzten du herriak eta komunitateak ez ezik esparru publikoa ere borrokarako agertoki estrategikoa badela.


Erregimen soziala den aldetik, faxismo soziala demokrazia politiko liberalarekin batera existi daiteke. Demokrazia kapitalismo globalaren eskaeren aurrean sakrifikatu beharrean, garrantzi osoa kentzen dio; horren ondorioz, azkenean, ez da beharrezkoa, eta ez da komenigarria, kapitalismoa sustatze aldera demokrazia sakrifikatzea. Faxismo pluralista da, beraz; alegia, inoiz existitu ez den faxismo-mota bat. Izan ere, gizarteak politikoki demokratikoak eta sozialki faxistak izan daitezke, eta ziur nago horrelako gizarteak dituen garai batean sartzen egon gaitezkeela (Santos, 2014:36).

Labur esanda, agenda hegemonikoak, sistemaren erreprodukzio-krisiari aurre egiteko, zibilizazio-proiektuaren balio sendoen (irabaziak maximizatzea, inbertsioen segurtasun juridikoa bermatzea...) alde egiten du, balio ahulen (demokrazia, subiranotasuna, etab.) kalterako; eta balio ahul horiek, balioa galduta, euren adierak ere galtzen dituzte. Horren ondorioz, badirudi gaur egun eta etorkizunean bazterketa-eta indarkeria-logikak (indarkeria koloniala, klasista, heteropatriarkala, eta lurraldeak zein baliabideak kontrolatzeko indarkeria) nagusituko direla botere korporatiboak eraginda; izan ere, eragile politiko eta ekonomiko nagusi bihurtuko da azkenean, eta herrien eta lurraldeen (eta men egiten ez dioten erakunde publikoen) kontrako erasoaldi latz bati ekingo dio, kapitalaren eta demokraziaren artean, kapitalaren eta bizitzaren artean, dagoen kontraesana agerian utzita.

Bizitzaren eta guztion ongiaren alde egin nahi duen agenda alternatibo ororen lehentasun estrategikoak honako hauek dira, besteak beste: botere korporatiboa eraistea, eskualde- eta mundu-mailako hitzarmen berriak geldiaraziz; lurraldeak eta ondasun komun publiko zein pribatuak defendatzea; araurik ez duen eta korapilatsuegia den finantza-sistema desegitea; bazterketa- eta indarkeria-mota orori aurre egitea; eta demokrazia funtsezko balioa dela aldarrikatzea. Jarraian, eta ildo horretan aurrera egin nahi badugu, ikus dezagun zenbaterainokoa den korporazio handien aurkako borroka.

c. Botere korporatiboa, agenda hegemonikoaren protagonista

Korporazio handiek izugarritzko boterea biltzen dute, arlo ekonomikoaz gaindi arlo kultural, politiko eta juridikoan zabaltzen dena. Lehenago adierazi dugunez, korporazio handiez ari garenean, ezin ditugu merkatu kapitalistetan jarduten duten enpresatzat hartu; izan ere, zuzen ari gara botere korporatiboaz mintzatzean zentzu barne-hartzaile eta integral batean, enpresa transnazionalak oinarri hartuta agenda hegemonikoaren fronte guztiak dinamizatu eta gobernantza-eredu bat bere irudira eratzen duen aldetik.



Iturria: Egileek egina.

lido horretan, aurrekari historikorik gabeko botere bat da. Beraz, eta nahiz eta enpresa handiek eragin handia izan duten beti gizarte globalean, haien garrantzia esponentzialki handitu da globalizazio neoliberalerako prozesua abian jarri zenetik; izan ere, korporazio handiak prozesu horretako protagonistak dira. Adierazpen hori, fenomeno horren espezifikotasunari buruzkoa, egungo lau dinamikatan oinarritzen ditugu. Dinamika horiek botere korporatiboaren oinarri diren lau dimentsioekin (ekonomia, kultura, politika eta zuzenbidea) lotuta daude.

Lehenengo eta behin, eta esparru ekonomikoan, enpresa transnazional gutxi batzuek botere osoa biltzen dute; hain zuzen, enpresa horiek estatu askok baino ahalmen ekonomiko handiagoa dute. Beraz, 2016an, munduko 100 erakunde ekonomikorik handienetatik, 69 korporazioak dira, eta, beraz, 31 baino ez dira estatuak (2015ean, erlazioa 63/37 zen)⁴. Orobat, 2015ean emaitzarik onenak lortu zituzten 10 enpresa handien merkatu-balioa jarduera makroekonomikorik txarrena izan zuten 180 herrialdeetako barne-produktu gordinaren (BPG) berdina zen. Horrenbestez, enpresa handiak lehen mailako eragile ekonomikoak dira, “erortzen uzteko handiegiak”; horren ondorioz, lehentasunezko zeregina hartzen dute berentzat, garapen-prozesu orotako premisa gisa.


Bigarrenik, kultura-esparruari dagokionez, komunikazio, informazio eta ezagutzaren sektoreak ez dira inoiz gaur egun bezain merkaturatuta egon, enpresa handien jabetzaren eta kontrolaren pean⁵. Hortaz, enpresa horiek kontakizun hegemonikoa maneiatu eta euren interesen arabera bideratzen dute; besteak beste, euren balio positiboak (enplegua, inbertsioa, garapen teknologikoa, etab.) azpimarratzen dituzte, askotariko eragin txarrak badituzte ere. Halaber, egungo intentsitate txikiko demokraziarekin bat datorren herritartasun-eredu indibidualista, kontsumista eta pasibo bat defendatzen dute (Santos, 2011).

Hain zuzen ere, eta botere politikoarekin erlazionatuta, mundu- eta eskualde-mailako eremuen (herritarrengandik oso urrun daudenen) garrantzia gero eta handiagoa da, eta multinazionalak izan dira horren onuradun nagusiak; izan ere, eremu horietan dute eragina izateko aukera handia, lobbyen eta ustelkeria sistemikoaren bidez. Besteak beste, lurralde zehatzak eraginkortasunez eta zuzenean kontrolatzen hasi dira; esaterako, Hondurasko eredu-hiriak.

Azkenik, botere korporatiboaren izaera protagonistak botere politikoaren zirkulua ixten du: eskubide korporatibo global indartsu, galdagarri, inperatibo eta justiziagarri bat inposatuz, oinarri juridiko bat eratzen du, inbertsioen segurtasuna giza eskubideen nazioarteko esparruaren gainetik jartzen duena. Horretarako, arbitraje-auzitegi pribatuez baliatzen da. Transnazional handiek soilik jo dezakete auzitegi horietara, euren irabaziei kalte egin zaiela uste badute. Gainera, organismo aldeaniztunek, jatorri-estatuak, inbertsioak jasotzen dituzten estatuak eta korporazioek parte hartutako gobernantza orokorreko egitura batera ere jotzen dute.

4 Global Justice Now erakundeak 2016ko irailean argitaratutako *10 biggest corporations make more money than most countries in the world combined* txosteneko datuak.

5 Hala gertatzen da hedabideei dagokienez, sei talde handi hauetan biltzen baitira: Viacom, Time Warner, News Corporation, Disney-ABC, Vivendi eta Bertelsmann (Barragán, 2011).



Iturria: Egileek egina.

Botere korporatiboaren erradiografia eguneratu horri esker, zeinen zabala eta sendoa den uler dezakegu, eta ohar gaitezke gure bizitzaren espektro osoa barne hartu nahi duela. Botere ekonomikoan –batez ere globalizazio neoliberalaren hasi ondoren pilatutakoan– oinarrituta, kultura-imaginarioak kontrolatzeko estrategia bati ekiten dio, informazio, komunikazio eta ezagutzaren bidez. Orobat, demokraziaren kontrako eraso bat sustatzen ari da, baita gaur egun indarrean dagoen intentsitate txikiko demokraziaren kontra ere, gobernantza globalaren eredu bere irudira antolatzen. Horretarako, bere interesen aldeko *inpunitate-arkitektura* bat sortu du, eredu horri eusteko (Hernandez eta Ramiro, 2015).

Hortaz, botere korporatiboa indarrean dauden zibilizazio-proiektuko eta gizarte-ereduko protagonista da, baita garapenean dagoen agenda hegemonikoaren sustatzaile nagusia ere. Botere korporatiboak bere eragin politikoa erabiltzen du eskualdeko eta nazioarteko merkataritza- eta inbertsio-tratatuak sinatu eta martxan jar daitezkeen. Horren bidez, behin betiko akabera eman nahi diote demokraziari, eta merkatuak zabaltzen jarraitu, batik bat zerbitzuen sektorean. Botere korporatiboak aktiboki jarduten du lurraldeak eta ondasun komunak edota estrategikoak (energia, lurra, ura, elikagaiak, finantzak, zerbitzuak eta ezagutza) kontrolatzeko borrokan. Botere korporatiboa finantzarizazioaren aitzindaria da, kapitala erreproduzitzeko bide gisa, nahiz eta oso ondorio kaltegarriak izan. Eta, azken finean, botere korporatiboak muga politiko, kultural, epistemologiko eta juridiko guztiak antolatzen eta pribatizatzen ditu, indarkeria sistemiko baten modalitate guztietan parte-hartze aktiboa izanez.

Hortaz, botere korporatiboa gaur egungo statu quotik kentzea beharrezko baldintza da, nahikoa ez bada ere. Ildo horretan, baldin eta zibilizazio-krisiari aurre egin nahi badiogu, baldin eta kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazkan bizitzaren alde egiten badugu, eta baldin eta agenda hegemoniko baztertzailerik eta bortitza geldiarazi nahi badugu, emantzipazio-prozesu ororen antagonistatza hartu behar ditugu enpresa transnazionalak. Ez dira antagonista bakarrak, baina antagonistak dira, edonola ere. Gainera, enpresa horien aurkako borroka emantzipazio-alternatiba ororen funtsezko ataletako bat da.

2. Botere korporatiboa eraisteko esparru-agenda bat

Behin egoera orokorra aztertutakoan, non kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka areagotu egin dela ondorioztatzen den, eta agenda hegemonikoak zer mugarriren eta subjekturen bidez erreproduzitu nahi duen egiaztatu ondoren, gure hausnarketan sakondu behar dugu. Zentzu horretan, bigarren kapitulu honetan, zenbait indar-ideia proposatuko ditugu, bizitza esplizituki defendatuz agenda hegemonikoari aurre egiteko.


Lehenik eta behin, sei premisa ezarriko ditugu, gaur egun, paradigma-aldaketa gertatzen ari den une erabakigarri honetan, agenda alternatiboak sustatzeko jarraibideak ematen dizkigutenak. Bigarrenik, eta sei premisa horien osagarri, sei gako politiko azalduko ditugu, norantz bideratu eta emantzipazio-ahaleginak non bildu iradokitzeko. Eta, azkenik, botere korporatiboaren kontrako borrokari dagokionez, 20 proposamen zehaztu ditugu, aipatutako premisa eta gako horiek geure gain hartuta kapitalari lekua hartzeko, guztion ongiaren, lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren onerako.

Azken finean, kontua da nola, norantz eta zer egin behar den azalduko duen erreferentziazko esparru teoriko-politiko bat eratzea, botere korporatiboa eraisteko. Ildo horretan, proposatzen dugun agendaren helburua korporazio handiek pilatutako boterearekiko erresistentziak eta alternatibak indartzea da. Horretarako, esparru orokor eta integral bat proposatzen dugu, eragile sozial eta politikoei gogoetak eta ekimenak iradokitzeko. Eta eragile horiek, azken batean, euren testuingurura, egoerara eta ahalmen espezifikora egokitu beharko dute esparru orokor hori.

a. Botere korporatiboaren aurkako alternatibak, zer premisatan oinarrituta sustatu?

Agenda alternatiboek euren gain hartu behar dute egungo egoera erabakigarriak sortutako erronka. Horretarako, estrategia politikoak garatu behar dituzte, hiru ikuspegi hauek aintzat hartuta: lehenik, askotariko subjektu eta agendek historian zehar sustatutako emantzipazio-borroketan lortutako esperientzia jasotzea; bigarrenik, eredu hegemonikoak erreproduzitzeko erabili nahi dituen mugari eta eragileei aurre egitea, eredu hori eteteko; eta, azkenik, indarrean dauden zibilizazio-parametroak gainditzeko oinarriak finkatzea, egungo egoerak ematen duen aukeraz baliatuz.

Ekuazio korapilatsu horren izendatzaile komunetan txikiena aurkitzeko, 6 premisa ezarriko ditugu jarraian. Gure ustez, une paradigmatico honetan agenda emantzipatzaileak eratzten lagundu diezagukete premisa horiek, iragana, oraina eta etorkizuna uztartuz. Indar-ideiak dira, erreferentzia espezifikoetat botere korporatiboa hartuta eta gako emantzipatzaileetan oinarrituta gaur egungo erresistentzia eta alternatibei aurre egiteko ikuspegi jakin bat emango digutenak:



Iturria: Egileek egina.

1. ***Bizitzaren iraunkortasuna beren-beregi defendatzeko agendak.*** Bizitza da defendatu, eutsi eta zabaldu beharreko subjektua, bizidun oro barne hartuta. Gauzak horrela, bizitzaren erreproduzioa bideratzen duten ezaugarriak hartu behar ditugu aintzat gure aldaketa-ahaleginetan. Hiru nabarmendu nahi ditugu, bereziki garrantzitsuak baitira: lehenik, bizitza errealtate ekodependente, finitu eta zaurgarri gisa; bigarrenik, bizitza askotariko fenomeno gisa; azkenik, bizitza beti komunitatean garatzen den prozesu interdependente gisa.

Ildo horretan, ekologikoki itxita dagoen eremu batean bizi gara, material eta baliabideei dagokienez; hortaz, gainditu ezin diren muga fisikoak daude. Ekoizpeneko, kontsumoko eta gizarte-antolaketako eredu guztiak ez dira ez bideragarriak ez desiragarriak, eta, beraz, beharrezkoa da klima- eta energia-testuingurura ondoen egokitzen diren ereduak alde egitea. Gainera, bizitza errealtate anitz bat da; hori dela eta, beharrezkoa da aniztasun hori onartzea eta zaintzea, bizitza erreproduzituko bada. Horrenbestez, funtsezkoa da egun dauden ongizate- eta zuzentasun-ikuspegiak eta jakintza-mota guztiak balioestea, baita askotariko subjektu eta agendak daudela onartzea ere. Edonola ere, konpromiso bat behar da horretarako; alde batetik, aniztasuna babesteko, eta, beste batetik, aniztasun hori berdintasunaren ikuspegitik antolatuko duten erreferentzia komunak bilatzeko. Eta, bizitza-mota guztien artean dagoen interdependentsia dela medio, kolektiboan jarri behar dugu arreta. Hortik, demokrazia eta elkarrekikotasuna garrantzitsuak direla ondorioztatzen dugu, eta denok zuzenean dagozkigun erabakietan aktiboki eta kalitatez parte hartzea ere badela, emantzipazio-subjektu zabal, askotariko eta anitz baten logikaren baitan. Hortaz, bizitza babesteko sustatzen ditugun agendek honako hauek hartu behar dituzte modernitate kapitalistaren proiektuaren aurka egiteko premisatzat: iraunkortasuna, aniztasunaren berdintasunaren alde egitea, eta zuzeneko eta partaidetzako demokrazia.

2. ***Agenda integralak eta globalak.*** Krisia zenbait zibilizazio-balioren ondorio izan zela jakinda, kontuan izan behar dugu kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka ez dela egoeraren kontu bat. Izan ere, zenbait parametro, egitura eta kontakizun sistemiko, global eta historikorekin ere badago lotuta. Beraz, komeniko litzateke emantzipazio-borroka logika integral batean oinarritzea, elementu horiei guztiei heltzeko. Horretarako, beste kontakizun batzuk eta bizitza antolatzeko beste modu ekonomiko eta politiko batzuk kontrako norabidean kokatu beharko genituzke, eredu hegemonikoaren erreproduzio-eremu guztietan. Hori dela eta, estrategia zabalak garatu behar ditugu arlo guztietan: ekonomian, politikan, gizartean, kulturean, epistemologian, komunikazioan, etab. Horrenbestez, behar-beharrezkoa da strategiak dimentsio anitzeko ikuspuntu batetik formulatzea eta indarrean dagoen zibilizazio-proiektuak irauten laguntzen duten dimentsioen aurre-aurrean jartzea.

Halaber, tokioa orokorrekarekin lotzeko azterketak eta proposamenak egin behar ditugu. Hau da, agenda hegemonikoa orokorretik zabaldu eta lurraldean finkatzen da, eta, ildo horretan, agenda alternatiboek, lurraldea defendatu nahi badute, estatu, eskualde eta mundu osoarekin duen loturari heldu behar diote. Hori dela eta, estrategia integralak erabiltzea eta tokikoaren eta orokorrekaren arteko lotura ezartzea beharrezkoa da, baita premiazkoa ere, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka bideratzen duten egoerak eraisteko, logika kosmopolita baina sustraituei jarraituz (Tarrow, 2011).

3. ***Trantsiziozko agendak.*** Alde batetik, krisiak agerian utzi du zeinen premiazkoa den giza bizitza arriskuan jartzen duen erasoari, aurrekaririk ez duenari, aurre egitea. Baina, beste batetik, itzelezko borroka bat proposatzen du, termino historikoetan denbora luzea behar duen borroka bat, epe luzeko ikuspegia behar duen bat, alegia. Itxurazko paradoxa horren aurrean, emantzipazio-agendek berehalako kontuei erantzun behar diete, eta, aldi berean, eredu hegemonikoaren kontrako eremuak finkatzeko eta zabaltzeko strategiak erabili, egoeraren larritasuna gizartearentzat oraindik nabarmena ez bada ere (Santiago Muiño, 2016). Gure iritziz, emantzipazio-agendek erreformaren eta iraultzaren edo aldaketa txikien eta eraldaketa handien arteko eztabaida zaharra gainditu beharko lukete. Batzuk zein besteak finkatu beharko litzukete, pixkanaka –baina ez ezinbestean era linealean–, kapitalak ostutako eremuak berreskuratzen lagunduko diguten estrategietan. Beraz, alde batetik, berehalako erantzunari, erreaktiboari, ihes egin beharra dago; izan ere, erantzun hori posiblea izan daitekeenaren esparruari baino ez dagokio, modernitate kapitalistak baimentzen duenari, alegia. Beste batetik, ez dira emantzipazio-gako guztiak batera eta mailakatu gabe ezarri behar.

Hala, emantzipazio-agendek trantsizioa ardatz estrategikotzat hartzea proposatzen dugu. Horretarako, beharrezkoa da berehalako eta premiazko beharrekiko erantzuna indarrean daudenen antagonikoak

diren bizitza-moduetarantz hemen eta orain igarotzeko ausardiarekin konbinatzeko erronkari heltzea. Horrek bultzatuta, emantzipazioa helburu, makroa mikroarekin uztartu behar dugu, eta estrukturala koiunturalarekin, eta eraldaketa sistemiko handiak bestelako aldaketekin (pertsonalak, antolaketakoak eta komunitarioak). Baina, aldi berean, hemen eta orain gertatzen ari den zerbait dela ulertu behar dugu, egunerokoa ere politizatze aldera (Fernandez, Piris eta Ramiro, 2013).

4. **Agenda inklusiboak.** Kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka bi termino horiek bateraezinez direla adierazten duen binomiotzat har daiteke, baina ez da kapital abstraktuen eta gizakien eta planetaren arteko borroka dikotomiko bat. Honela definitu genuen kapitala: zibilizazio-proiektu bat egituratzen duen metafora, kapitalean agortzen ez den mendekotasun anitzeko sistema bat eratzen duena; izan ere, lehenago ikusi dugunez, kapitala nahaste moduko batean proiektatzen da; hain zuzen ere, kapitalismoak, heteropatriarkatuak, kolonialitateak, produktibismoak eta intentsitate txikiko demokraziak askotariko eragile eta logikekin –gatazkan daudenekin– batera jardutean sortutako nahaste batean.

Ildo horretan, agenda hegemonikoaren eta agenda alternatiboen arteko borroka ezin da ikuspuntu estatiko batetik ulertu, konplexutasun eta dinamismo handiko gatazka batean parte hartzen ari baitira. Alde batetik, eta arreta kapitalen zentzu zorrotzean (ez metaforikoan) jarrita, ikus dezakegu kapitalek ez dutela izaera bakar bat, parametro komunak dituzten interes, testuinguru eta dinamiken mendean daudela, nahiz eta, azken batean, haiek beti bat etorri ez. Hori dela eta, garrantzitsua da interes, testuinguru eta dinamika horien arteko adostasunak eta desadostasunak aztertzea, kapitalismoak XXI. mendean duen konfigurazio berria aintzat hartuta (aurreko kapituluan aztertu dugu).

Baina, beste batetik, funtsezkoa da, emantzipazio-proposamenen onerako, kapitalismoaren inguruan antolatutako mendekotasun anitzeko sistemaren aurka borrokatzeko erronkari heltzea; izan ere, pertsona, talde, komunitate, herri eta mugimenduen artean gizarte-mailaren, generoaren, etniaren edo arrazaren, sexu-identitatearen eta abarren arabera dauden asimetria nabarmenak aztertu beharko ditugu, baita haiei aurre egin, emantzipazio-prozesuak gauzatzeko ikuspegi sinplistik alde batera uzteko. Zentzu horretan, behar-beharrezkoa da batzen, barne hartzen eta elkartzen duten agendak formulatzea, bizitza-eredu hegemonikoaren (gizon zuria, heterosexuala, indibidualista, presentzia publikoa duena, ustez bere burua aski duena eta baliabideak dituena) aurka egiteko.

Hortaz, baldin eta gehiengo sozialak baztertzen eta esplotatzen dituen eredu gaitzeta bada helburua, beharrezkoa da trantsiziozko agendak eta estrategiak zehaztea, esperientzia partzial, kokatu eta zehatzetan oinarrituta. Horrez gain, mundu komun batean inplikatzeko borondatearekin jardun beharko da, menderatze kapitalistari (nagusiki, zibilizazio-prozesuaren ardatz egituratzailea baita) eta, aldi berean, heteropatriarkalari, kolonialari, produktibistari eta demokratikoki balio txikia duenari modu integral eta inklusibo batean aurre egiteko. Beraz, koordinaziozko agenda eta arrazoibidea eratzearen alde egiten dugu, gako partekatuetan oinarrituta sortzen, eztabaidatzen, argudiatzen, negoziatzen eta akordio alternatiboak lortzen dituzten eragileak biltzeko. Horretarako, komunikazio-diskurtso bat erabiltzea proposatzen dugu, akordio horiek aurkezteko, erantzuteko, hausnartzeko eta legitimatzeko aukera ematen duena (Schmidt, 2011).

5. **Agenda erantzunkideak.** Agenda alternatiboak bideratzeko moduari buruzko gogoetetan, sustatzaileak ere hartu behar dira aintzat; alegia, aldaketaren subjektua. Gure aburuz, hau da gure erronka: indarrean dagoen statu quo goitik behera aldatzeko behar bezain indartsua den subjektu zabala, askotarikoa eta anitza sortzea. Subjektua gure apustu inklusiboarekin bat etorriko bada, pertsona, talde eta komunitate guztiak esparru komunetan bildu beharko lituzke; nolana ere, langile-klasea ardatz hartuta. Aztertu egin behar da zer estrategiak eta zer eragilek izan dezaketen eraginik handiena zentzu horretan. Hain zuzen, hor dago boterearen eta kontraboterearen arteko eztabaida; hau da, zeri eman lehentasuna, bide ofizialei eta erakundeen bideei ala autonomia sozial eta komunitarioari?

Egoera horretan, eta kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazkaren garrantziari erreparatuta, emantzipazio-agendek erakunde, mugimendu eta komunitateen arteko erantzunkidetasunaren alde egin beharko lukete, kasuan kasuko baldintzak beteko balira, herri-boterea sendotzeko dinamikei jarraituz (Gomez, 2015). Zentzu horretan, eta azken kontzeptu hori helburutzat eta aurrerapenaren adierazle pribilegiatutzat hartuta, autokudeaketa sozial eta komunitarioaren zeregina funtsezkoa izango da trantsiziozko emantzipazio-prozesu ororen oinarri gisa. Dena den, parametro

hegemonikoekin bat egin ohi badute ere, erakunde publikoek ere zeregin aktiboa izan dute, dute eta izan dezakete herri-boterearen aldeko eremuak sustatzen eta sortzen. Gainera, kontuan hartu behar dugu arlo publikoa estrategikoa dela eta liskarpean dagoela, aurreko kapituluan ikusi genuenez. Edonola ere, argitu nahi dugu erantzunkidetasuna testuinguruan jarri behar dela kasu jakin bakoitzean (ildo horretan, erakunde, mugimendu eta komunitateen ahalmen eta borondateak aztertu beharko dira). Beraz, askotariko aukerak egon daitezke (haietako bat erakundeen kontrako borroka izan daiteke), baina ez dira derrigortasunean oinarrituta egongo, ez eta, kontrako zentzuan, destaina printzipista batean ere.

Horrenbestez, beharrezkoa da elkar ulertzeko eta oraingo uneari buruzko azterketa kritikoa egiteko ahalegina egitea. Beraz, arlo publikoak emantzipazio-prozesuen (eta ez soilik birbanaketa-prozesuen) zerbitzura ipini beharko lituzke bere dinamikak. Mugimendu sozial eta komunitarioek, berriz, gatazka politikoaren konplexutasunetik ondorioztatutako erronka onartu beharko lukete, kokatutako eta testuinguruan jarritako trantsiziozko logiketatik abiatuta.

Ildo horretan, Santosek estatua berrasmatzearen alde egiten du, estatua “mugimendu sozial berri-berrizat” hartuta. Horretarako, hau izan behar da kontuan:

Ez estatuaren printzipioak ez komunitatearen ezin dute bakoitzak bere aldetik merkataritzakoak ez diren interdependentzien (haiek gabe, gizarteko bizitza faxismo sozialaren mota bat da) iraunkortasuna bermatu, merkatu-printzipioaren *hybris* zapaltzailea ikusita. Ikuspegi horrek estatuaren eta komunitatearen printzipioen arteko beste lotura bat, pribilegiatua, proposatzen du, eta, hartan, komunitatearen printzipioa da nagusi. Estatua estatu enpresari gisa berrasmatzean, merkatuaren eta estatuaren arteko isomorfismoak indartzen dira, baina aipatutako ikuspegi horrek komunitatearen eta estatuaren arteko isomorfismoak indartzen ditu (Santos, 2011:269).

- 6. Aurretik zehaztutako maparik gabeko agenda ausartak.** Konplexutasuna da gaur egungo une historikoaren ezaugarri nagusietako bat, bai parte hartzen duten subjektuei eta aldagaiei dagokienez, bai egoera politiko eta ekonomikoari dagokionez. Paradigma-aldaketa bat ari da gertatzen; izan ere, bizitza antolatzeke eredu hegemonikoaren oinarriek aldaketa handiak izan dituzte eta izango dituzte.

Hortaz, bizitzaren aldeko agendek erronka horri egin behar diote aurre, emantzipazio-gakoak aintzat hartuz, eta estrategia integral, inklusibo eta erantzunkideak erabiliz, betiere, gure oinen azpiko lurra mugitzen dela kontuan hartuta. Hau da, aldaketa handia gertatzen ari da, eta ez daukagu kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka laburbiltzen eta sinplifikatzen lagunduko digun ez ziurtasunik ez dogmarik. Hori dela eta, funtsezkoa da herri eta komunitateen ausardia eta sormena garatzea, lur hori lortzeko, zalantzazko etorkizunari aurre egitean oinarri sendoak izateko, maparik gabeko ibilbideei jarraituz prozesuak gauzatzeko, aurretik zehaztu gabeko eskulibururik gabeko bidezidorretatik joateko (Santiago Muiño, 2016), alternatiba barrokoak sortzeko, balio kontrahegemonikoak eratzen dituzten baina aldi berean modernitate kapitalistak zeharkatuta dauden alternatibak, alegia.

Hain zuzen, hurrengo atalean, aurrera egin ahal izateko beharrezko dugun lur hori –hots, gure erreferentziazko esparruko alternatibak bultzatzeko helmuga den etorkizuna– ezartzen ahaleginduko gara. Alternatiba horiek agenda ausartetan sartu beharko genituzke. Agenda ausartek ezaugarri hauek izan behar dituzte: bizitzaren erreproduktzioa babestea; ikuspegi integral eta globaletan oinarrituta egotea; trantsiziozko eta mailakako borrokako estrategiak formulatzea; erantzunkidetasuna oinarritzat duten subjektu eta proposamenak barne hartzea; eta ziurgabetasuna balio garrantzitsutzat hartzea, hain zuzen, modernitate kapitalistaren proiektua gainditzeko borondate politikoa mugatzen ez duen baliozkat.

b. Zer etorkizunerantz bideratu botere korporatiboaren aurkako alternatibak?

Aurreko ataleko premisek kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka politikoaren jokalekuaren baldintzak zehazten zituzten. Orain, ordea, ginetik eta ikuspegi emantzipatzaile batetik azalduko dugu gure ustez zer bideetatik joan behar dugun. Lehenago adierazi dugunez, ez dago bide horietako mapa zehatzik. Dena den, ez gara erlatibismoan eroriko, eta, bestalde, ez dugu proposatzen den ekimen oro parametro kontrahegemonikoetatik ospatuko. Aitzitik, ekimen horiek pizgarri bat izango dira, agenda eta estrategia integral eta inklusiboen oinarriak bilatzeko, ausardiaz eta balio alternatibo eta emantzipatzaileetatik

abiatuta aurre egin diezaieten zibilizazio-proiektu hegemonikoari, gizarte globalaren indarreko ereduari eta botere korporatiboari:

1. **Lurraldea, bizitzaren antolaketa alternatiboaren subjektu estrategiko gisa.** Tokikoa –alegia, lurraldea– lehentasunezko eremua izatearen garrantzia proposatu nahi dugu, hura aintzat hartuta modu ekonomiko eta politiko emantzipatzaileak berriro pentsatzeko. Lurraldea ez da administrazio-entitate huts bat, bizitzaren garapena hartzen duen eremu nagusia baizik. Lurraldean, subjektu berriak eratzen dira, euren eremua eratzen dute, eta haren jabe egiten dira materialki zein sinbolikoki (Zibechi, 2007). Tokikoa lehentasunezko helburu gisa balioesteak ez du loturarik ez autarkia-erregimen batekin ez itxuraz idilikoa zen aurreko bizitza komunitario batera itzultzearekin. Aitzitik, eskumenen lehentasunak tokiko esparruaren, estatukoaren, eskualdekoaren eta esparru globalaren artean berrantolatu behar direla adierazten du –betiere, esparru horiek deuseztatu gabe–, bakoitzaren egungo eginkizunak berrikusteko eta lurraldeari garrantzi handiagoa emateko. Ildo horretan, ez dugu tokikoa lokalismoarekin nahastu behar; izan ere, berrantolaketa horrek ez luke esparruak desagertzea ekarriko, eta, gainera, maila anitzeko egitura-logiketan oinarrituko litzateke beti, baina lurralde-oinarri sendo batekin (Santiago Muiño, 2016). Nolanahi ere, eta globalizazio neoliberalarekin erlazionatutako konplexutasun-maila aztertu ostean, beharrezkoa izango litzateke kontrako bidea egitea, horri esker demokrazia handitzeko eta arlo ekonomikoa arlo politikoaren baitan mugatzeko.

Lurraldearen ikuskera horretatik abiatuta, esparru horretan igartzen dira, gure ustez, balio, egitura eta jarduketa sozioekonomiko berriak ezartzeko baldintzarik onenak. Beraz, gure iritziz, tokiko esparruan (jakina, liskarpeko eremua da, eta ez gatazkarik gabea), beste sistema ekonomiko batzuk zehaztu daitezke: materialen, energiaren eta hondakinen fluxuek zehaztutako muga fisikoak premisatzen hartzen dituztenak; kolektiboari eta demokraziaren aginduari men egiten dietenak, guztion ongian aldeko erreferentziak aintzat hartuta; pribatuaren eta irabazi-asmoaren eremua arlo publikoaren eta komunitarioaren onerako mugatzen dutenak; sozialki beharrezkoa den lanari lehentasuna ematen dietenak, kapitalari eman beharrean, azken horri tratamendu ez-kapitalista emanez; eta printzipio zuzentzaile gisa aniztasun ekonomikoa hartzen dutenak, eta, hortaz, ekonomia alternatiboetako gero eta garrantzi handiagoa ematen dietenak. Hortaz, lehen gako gisa egungo eskumenen lehentasunak berrantolatzea proposatzen dugu, esparru globalaren kalterako eta lurraldearen onerako, sistema ekonomiko alternatiboak ezartzeko: konplexutasunik gabeak; anitzak; guztion ongian, demokrazian eta lanean oinarrituak; eta, beraz, irabaziaren nagusitasunari uko egiten dietenak.

2. **Herri-boterea oinarri duten agenda demokratikoak.** Gure erreferentzia-esparruan, bizitza antolatzeako modu alternatiboek apustu honekin bat datorren oinarri politikoa dute. Hau da, herri boterearen kontzeptua defendatzen dugu. Honako hau da:

Herri bateko gehiengo handia antolatzea eta dagozkion oinarrizko gaiei buruzko erabakietan benetan parte hartzea (Colussi, 2007).

Horrenbestez, subiranotasun kontzeptuaren bertsio osoa erabili beharra dago, eta ez bertsio murriztu bat. Ildo horretan, herriek, herritarrek, komunitateek estrategikotzat hartzen diren gaiei buruz erabakitzeak ahalmena izan behar dute. Ez dago herri-boterekerik, baldin eta zuzeneko eta partaidetzazko demokrazia-prozesuen bidez bideratzen ez bada, parte-hartzea erabakiak zenbait erakunderen esku uztea ez bada. Orobat, herri-boterea autokudeaketa-maila jakin batekin ere dago lotuta. Horretarako, subjektuek autonomo, emantzipatu, aktibo eta kritikoa izan behar dute, eta egiturak autoeratu behar dituzte esparru politikoan, baina baita ekonomiko, sozial eta kulturean ere, demokrazia kontzeptu zabalago batean oinarrituta. Apustu hori edozein eskumen-arlotara heda badaiteke ere, lurraldean egokitzen da ondoen; hots, tokiko esparruan. Tamainari erreparatuta, errazagoa da esparru horretan zuzeneko eta partaidetzazko demokrazia-formulak sustatzea, baita ekonomikoki eta kulturalki autokudeatutako formulak proposatzea ere. Beraz, gure erreferentzia-esparruan, honako hauek uztartzen dira: alde batetik, irabaziekin zerikusirik ez duten eta lurraldean garatzen diren proposamen ekonomikoak, eta, beste batetik, herri-boterea handitzen duten zuzeneko eta partaidetzazko demokrazia-formulak.

3. **Kontakizun kontrahegemonikoak, emantzipazio-balioetatik abiatuta.** Bizitza antolatzeako modu berriak sortu dira, eta, hori dela eta, indarreko proiektuak inposatzen duen kontakizun

bakarrari aurre egingo dioten imajinarioak behar dira, agenda integral, global eta inklusiboen alde ezarri ditugun premisekiko koherentziaz. Ildo horretan, jarduketa alternatiboak sustatzeaz gain, beharrezkoa da haien posibilitate-baldintzak sortzea eta ugaritzea. Horretarako, funtsezkoa da bestelako kontakizunak garatzea: zibilizazio-mantraren legitimotasuna kaltetzen dutenak –harekin erlazonatutako bideraezintasunean eta bidegabekeria sakonduz–, eta indarrean dauden antagonikoak diren zibilizazio-bideetarantz aurrera egiteko beharra, bideragarritasuna eta borondatea agerian jartzen dutenak.

Horrek eskatzen du indarrean dauden zentzu komunei buruzko azterketa kritikoa eta autokritikoa egitea, baita emantzipazio-prozesuak zehaztu ohi dituzten parametroei buruzkoa ere. Bigarrenik, antagonisten inpaktuak indar handiagoz salatzea bultzatzen gaitu (horien artean botere korporatiboa da aipatzekoa, eta, haren aurka, hainbat boikot-ekimen gauzatu dira, iritzi-auzitegiak sortu dira, etab.). Eta, azkenik, gure jarduera eraldatzaileak osatzera gonbidatzen gaitu, komunikatzeko eta ikasteko/jakiteko modu askatzaileagoen bidez (eta komunikazioari dagokionez, hedabide kritiko eta alternatiboak sendotuz) formula herrikoiak eta komunitarioak balioetsiz, betiere, elkar kutsatzea eta eremu alternatiboen hedapena ahalbidetzen duten kontakizun inklusiboen baitan.

4. **Aberastasunaren errotiko birbanaketa.** Aniztasunaren berdintasuna bizitzaren babesaren ezinbesteko beste erreferentzia bat da. Ez da paradoxa bat; orokortu daitezkeen (denontzat baliagarriak eta indarrekoak) eta aldi berean paregabeak diren (subjektu espezifiko bakoitzaren egoera eta jarreretara egokituak) alternatiben alde egiten du (Orozco, 2014). Zentzu horretan, eta beste bizimodu batzuetarantz igarotzeko egin dugun apustuarekin erlazonatuta, uste dugu estrategikoa dela gaur egun izate, ahalmen eta jakintzen terminoetan dauden itzelezko asimetriak desagerraraztea. Gure erreferentzia-esparruan zehar, denak batera aztertu ditugu. Orain, berriz, desberdintasunetan jarriko dugu arreta; besteak beste, aberastuen eta pobretuen, edukitzaileen eta desjabetuen, eta menderatzaileen eta menderatuen artean daudenetan.

Horri dagokionez, aberastasunaren errotiko birbanaketaren izaera estrategikoa azpimarratzen dugu; besteak beste, goitik behera berrikusi behar da ondasun eta baliabideen jabetzaren eta eskuratzearen egungo eredu. Hizpide dugun aberastasunaren adiera ez da ortodoxoa. Ez dagokio ondasun materialak pilatze hutsari, gizabanako bakoitzak bizitza betea eta naturarekiko harmoniatsua izateko behar duen oro lortzeari baizik. Adiera horren arabera, kapitalaren irabaziei, merkatuei eta etengabeko fluxuari eremu, egitura eta sektoreak kentzea da birbanatzea. Horretarako, desmerkantilizazio- eta desmonetizazio-logikak erabili behar dira, apurka-apurka arreta kolektiboan jartzeko, eta irabazi-asmoa ondasun komun edota estrategikoetatik (ura, lurra, energia, garraioa, finantzak, ezagutza, etab.) urruntzeko. Gainera, pertsona eta herrien eskubideak defendatzeko jarduketa publiko sendoekin ere badago lotuta, honako hau baitakar berekin: arlo ekonomikoa eta politikoa (zerga-sistema, zorra, erosketa publikoa, etab.) arautzea eta haietan aktiboki parte hartzea, aniztasuna indartzea eta bazterkeriaren kontrako borrokari lehentasuna ematea. Horrekin guztiarekin, berdintasunean sakontzen duen emantzipazioa proposatzen dugu. Horretarako, aniztasuna onartu eta erreproduzitu behar da, bai eta, elementu komunen nagusitasunean oinarritua, aberastasunaren jabetza eta hura lortzeko moduak goitik behera aldatu ere.

5. **Lanen errotiko birbanaketa.** Lanen moten eta denboren banaketan ere oso nabarmena da asimetria. Kasu honetan ere lanaren adiera zabalagoa hartuko dugu aintzat: lanak, merkatuko enplegutik harago, bizitzaren iraupenerako sozialki beharrezkoak diren zeregin guztiak hartzen ditu barne. Beraz, lana gizarte-proposamen alternatiboaren balio nagusietako bat bada, beharrezkoa da hura duintzea, edozein lekutan –merkatuan, komunitatean, etxean, etab.– egiten dela ere, eta ikuspegi emantzipatzaile batetik, ez erreakzionario batetik (Orozco, 2014).


Orobat, errotik birbanatu behar da. Horrek esan nahi du lan guztiak berdintasunez banatu behar direla, eremu guztiak –gehienbat, etxeak eta enpresak– sakonki demokratizatuz, egun dauden asimetria izugarriak –klasearekin, generoarekin eta abarrekin lotuak– desagerrarazteko. Demokratizazioa lanaren nazioarteko banaketari ere badagokio; izan ere, banaketa hori ez da ez estatikoa ez iraunkorra, eta, horren ondorioz, herri, herrialde eta eskualde asko mendeko eta ahulezia handiko egoera ekonomikoetan daude. Hortaz, kontrako norabidean jardun beharra dago, proposamen autonomo eta subiranoen alde eginez. Horrenbestez, asimetria sakonak (kolonialak, generokoak eta klasekoak) gaintitze aldera, lanen birbanaketa gure erreferentzia-esparruaren beste elementu estrategiko bat da.

6. **Mobilizazio sozial kritikoa eta aktiboa statu quoaren aurrean.** Azkenik, gure erreferentzia-esparruan etorkizunerako ezarritako helburuak lortuko baditugu, premiazkoa da mobilizazio sozial indartsua, kontzientzia kritiko orokorra, eredu hegemonikoaren mugarreri aurre egingo diena, egun indarrean dagoena albo batera utzi eta beste bide batzuetan aurrera egin nahi duena. Hortaz, gure proposamen alternatiboan, zibilizazio-proiektuari eta haren egungo protagonistari –botere korporatiboari– aurre egiten dieten borroka eta erresistentzia guztien antolaketa eta elkarrekiko eragina dira oinarriak. Borroka eta erresistentzia horiei esker, zibilizazio-krisi honen irtenbideak ez dira indarkeriaren eta bazterkeriaren bidez gauzatzen; aitzitik, parte-hartze eta mobilizazio sozialak sustatzen dituzte, lehen mailako balio alternatibo gisa.

Sei gako horien bidez, agenda alternatiboak bultzatzeko erreferentzia-esparrua eratzen dugu. Esparru horren arabera, lurraldeak zeregin estrategikoa izango du bizitza antolatzeko beste modu politiko eta ekonomiko batzuk garatzen. Horretarako, iraunkortasuna, herri-boterea, guztion ongia, lana eta aniztasuna hartuko ditu aintzat; alegia, merkatuak, kapitala eta irabazia gaur egungo erreferentzia-posiziotik kenduko lituzketen balioak. Bide horretan aurrerapenak egiteko, eremuak menderatu behar dira. Sistema alternatiboak orokortuz lortuko da hori, baina baita kontakizun kontrahegemonikoen bidez ere; hain zuzen, kontakizun kontrahegemonikoek eremu horiek lortzeko aukerak ugaritu behar dituzte, eta haietako gehienez jabetzen lagundu, *statu quoaren* deslegitimazioan, komunikazioan eta jakintza herrikoi eta kritikoetan sakonduz. Eta, azkenik, emantzipazio-ahaleginekin batera, beharrezkoa da erresistentzia eta mobilizazio soziala piztea, baita aberastasuna eta lanak errotik birbanatzea ere, proiektu kolektiboari buruzko eztabaida sustatzeko, eta klase-, genero- eta arraza-/etnia-desberdintasunak desagerrarazteko. Horri esker, egoerarik onenean aurre egingo zaio kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazkaren zibilizazio-erronkari.

Behin gure erreferentzia-esparruaren gakoak zehaztu ostean, berrordenatu egingo ditugu, trantsizio-logikaren arabera, eta botere korporatiboaren aurkako borroka espezifikora ekarriko ditugu. Logika horren haria agenda hegemonikoaren kontrako borrokaren intentsitatea da; alegia, gako bakoitzak indarrean dauden kontrako ekimenak proposatzeko dituen borondatea eta ahalmena. Ildo horretan, intentsitaterik txikienetik handienara antolatutako hiru elementuren arabera berregituratuko ditugu gakoak. Lehen elementua *erresistentziak* dira; hau da, agenda hegemonikoaren aurrerapena geldiarazteko euste-hormak. Bigarrena *erregulazioak* dira, agenda horretako subjektu protagonikoaren jardura-ahalmena mugatzeko, betiere, guztion ongiaren onerako. Azkenik, hirugarrena *alternatibak* dira, beste bizitza-mota batzuk eratzen dituztenak, nahiz eta, aurreago adierazi dugunez, nolabaiteko izaera barrokoa duten, eta, hortaz, haiek ere arrazoi neoliberal eta kapitalistaren eragina jaso duten (Ramiro, 2016).

5. irudia. Botere korporatiboarekiko alternatibak bultzatzeko gakoak



Iturria: Egileek egina.

Erresistentzia-erregulazioa-alternatiba segidar⁶, jarraituz, *statu quo*aren kontrako mobilizazio sozial kritiko eta aktiboa erresistentzien barruan kokatuko genuke, mobilizazioa baita parametro alternatiboak ezartzeko oinarria, lehen azaldu dugunez, kapitalak eremu gehiago lortzea galarazten duena. Botere korporatiboari dagokionez, gobernantza global korporatiboko ereduaren baitan dauden megaproiektu, egitura eta organismoak (NDF, Munduko Bankua, merkataritza- eta inbertsio-tratatuak, etab.) geldiarazi beharra dagoela azaltzen da beren-beregi.

Aberastasunaren eta lanen errotiko birbanaketari buruzko gakoak erregulazioarekin daude lotuta. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da erakundeek ildo horretan sakontzeko duten funtsezko zeregina; hain zuzen, guztion ongiaren aldeko politika publikoak garatu ditzakete, bai eta, besteak beste, herri-botere anitza bultzatzeko emantzipazio-eremuak bideratzekoak ere. Zehatz-mehatz, aberastasun korporatiboarekin (adibidez, ondasun komun eta/edo estrategikoen jabetza eta kudeaketa, zerga-sistema, zorra eta erosketak publikoak) eta lanaren defentsarekin (tokikoa/globala logikan oinarrituta merkatuko lan-harremanen duintasun-esparru baten alde egiteaz gain, zainketa-lanak ikuspegi emantzipatzaile batetik demokratizatuz eta balioetsiz) zuzeneko erlazioa duten esparruetan jarri behar da arreta.

Segidarekin jarraituz, laugarren gakoa –agenda demokratikoen aldeko apustua, herri boterearen bidez– erregulazioen eta alternatiben elementuetan sartzen da. Hala, erregulazioaren parte da, gaur egungo intentsitate txikiko gobernantza demokratikoaren agenda eta egitura eraistea proposatzen baitu; baina, halaber, alternatiba da, lurraldean benetako demokrazia-prozesuak eratzeko konpromisoa adierazten baitu. Oinarri politiko horrek azken bi gakoei eusten die (biak alternatibaren esparrukoak). Gako horiek proposamen ekonomiko emantzipatzaileak eta kontakizun kontrahegemonikoak sustatzea eta antolatzea proposatzen dute; alde batetik, merkatu kapitalistak eta haietako protagonistak nagusitasun-posiziotik kentzeko, eta, beste batetik, enpresa multinazionalen jardueraren inpaktuak salatzen eta alternatibak garatzeko aukerak sortzeko.

Hori da, azken batean, botere korporatiboaren kontrako gure esparrua, agenda integral, global, inklusibo, erantzunkide eta ausartetan oinarritutako alternatibak sustatzen dituen, kapitalaren kontrako borrokan bizitza defendatzen dutenak. Hortik abiatuta, aurrera egiteko estrategiak proposatzen ditugu: erresistentzia eta mobilizazio sozialak, transnazionalen eta haien gobernantza-sareari aurre egiteko; herri-subiranotasunaren eta ongizate orokorraren aldeko erregulazio publikoak, korporazioek egun duten inpunitatearen aurrean; eta, azkenik, bizitza antolatzen beste sistema eta kontakizun batzuk garatzeko konpromisoa, herri-botereak eremuak berreskuratzea eta enpresa transnazionalen pilotutako botera eraistea lor dezan. Alternatibak sustatzeko moduari eta norabideari buruzko ikuspegi espezifikorik horren arabera, enpresa handiei aurre egiteko jarduera-lehentasunak zehaztuko ditugu.

c. Zer egin botere korporatiboa eraisteko?

Botere korporatiboa eraisteko gure apustuari buruzko azalpena amaitze aldera, kapitulu honetan zehar gainetik azaldutako erreferentzia-esparruarekin zuzeneko lotura duten 20 proposamen zehaztuko ditugu. Beraz, haien bidez, enpresa transnazionalen pilotutako boterearen kontrako borroka integrala, globala, erantzunkidea, inklusiboa eta bizitzaren aldekoa proposatzen dugu, trantsizio-logika bat (erresistentzia-erregulazioa-alternatiba) oinarri hartuta. Orobat, proposamen bakoitza emantzipazio-etorkizunak zehazten dituzten sei gakoetako bati dagokio, gutxienez, hurrengo irudian ikus daitekeenez.

6 Edonola ere, eta elementuak borroka-intentsitatearen arabera ordenatzen baditugu ere, ez da nahitaez prozesu lineal bat, eta gako bakoitza ez da guztiz autonomoa; aitzitik, oso erlazio handia dago haien guztien artean. Nolanahi ere, eraldaketa estrukturalerako estrategia bateko elementuak modu progresiboan antolatzen balio digu.

6. irudia. Esparru-agendaren 20 proposamen, botere korporatiboaren kontrakoak.		
Gakoak	Trantsizioa	Proposamenak
Botere korporatiboaren kontrako euste-horma demokratikoak	Erresistentzia	Megaproiektuen aurkako herri-mobilizazioa.
	Erresistentzia	Gobernantza global korporatiboaren ereduaren aurrerapena geldiaraztea.
Aberastasunaren errotiko birbanaketa	Erregulazioa	Guztiona defendatzea: ondasun komun eta/edo estrategikoak merkatutik kentzea.
	Erregulazioa	Goitik beherako nekazaritza-erreforma, korporazioek lurak pilatzea eragozteko.
	Erregulazioa	Korporazioen zerga-saihestea eta zerga-ihesa etetea.
	Erregulazioa	Zor ilegala, higuingarria eta eutsiezina ez ordaintzea.
	Erregulazioa	Erosketa Publiko Sozialki Arduratsuaren (EPSA) aldeko apustu irmoa.
Lanen errotiko birbanaketa	Erregulazioa	Lan-harreman duinen tokiko eta nazioarteko esparru bat defendatzea.
	Erregulazioa	Zainketa-lanak duintzea eta demokratizatzea.
Botere korporatiboa eraisteko agenda demokratikoak	Erregulazioa	Enpresa transnazionalak eta giza eskubideak erregulatzeko esparru globala.
	Alternatiba	Lurraldea, bizitzaren antolaketa alternatiboaren subjektu politiko gisa.
Lurraldea, bizitzaren antolaketa alternatiboaren subjektu ekonomiko gisa	Alternatiba	Energia-subiranotasuna, guztion ongia.
	Alternatiba	Zainketa, komunitatearen arreta-gunea.
	Alternatiba	Produktzioa, guztion ongiaren aldeko lanean oinarritua.
	Alternatiba	Kontsumo txikiagoa eta arduratsua.
	Alternatiba	Banka etiko baterantz.
Botere korporatiboaren kontrako kontakizun kontrahegemonikoak	Alternatiba	Komunikazioa demokratizatzea: anitza eta ez korporazioen mendekoa.
	Alternatiba	Botere korporatiboaren kontrako salaketa eta eragina.
	Alternatiba	Herriko jakintzak, korporazioen eraginik gabeko bizitza baterako.
	Alternatiba	Botere korporatiboaren kontrako agendak eta estrategiak sustatzea.

Iturria: Egileek egina.

Jarraian, botere korporatiboaren kontrako gure esparru-agendako 20 proposamenak azalduko ditugu, banan-banan:

- 1. Megaproiektuen aurkako herri-mobilizazioa.** Lurraldea eta ondasun komunak defendatzea da helburua, enpresa handien ezarpenari aurre eginez. Horretarako, estrategia integralak

7 Proposamen horiek Latinoamerikan eta European hainbat eragilek sustatutako 30 ekimeni buruzko azterketaren ondorio dira, Fernandezek azalduta bezala (2016).

erabiltzea proposatzen da. Hona hemen estrategia horien osagaiak: mobilizazio soziala, zuzeneko demokraziako jarduerak, aniztasunaren kohesio soziala, tokikoaren eta nazioartekoaren arteko uztardura, erresilientzia eta sare transnazionalak sortutakoaren alternatiboak diren kontakizunak.

2. **Gobernantza global korporatiboaren aurrerapena geldiaraztea.** Demokrazia korporatiboaren ereduak eraistea proposatzen da. Haren mugarrak nagusien (merkataritza- eta inbertsio-tratatuak, bai indarrean daudenak, bai negoziatzen ari direnak) kontra eginez edota haiek atzera botaz lor daiteke, bai eta, beharrezkoa izango balitz, erabaki subirano eta aldebakarren bidez eredu horren lehentasunezko eragileekin (Munduko Bankua, NDF, arbitraje-azuzitegiak, etab.) harremanak izateari utziz ere.
3. **Guztiona defendatzea: ondasun komun eta/edo estrategikoak merkatutik kentzea.** Merkatuak eta kapitala nagusitasun-posiziotik kentzea da. Horretarako, jabetza publikoa pribatuaren kalterako sustatzen duten prozesuak gauzatu daitezke. Dena den, prozesu horiek harago joan behar dute; hain zuzen, ondasun komun eta estrategikoak (energia, garraioa, finantzak, elikagaiak, etab.) merkatutik kendu behar dituzte, logika publiko-komunitario bati jarraituz, eta erabakiak hartzean zuzeneko demokrazia erabiliz.
4. **Goitik beherako nekazaritza-erreforma, korporazioek lurak pilatzea eragozteko.** Lur-pilaketaren fenomeno larria amaitzea lortu nahi da, lurra ondasun komun estrategikotzat hartzen baita, elikadura-burujabetzaren agendarekin lotutako nekazaritza-erreformaren bidez.
5. **Korporazioen zerga-saihestea eta zerga-ihesa etetea.** Enpresa handien zerga-kontrol orokorra egitea proposatzen da. Ildo horretan, hau egin beharko litzateke: enpresa horien jarraipena egiteko nazioarteko egitura bat ezarri; zerga-paradisuak, transferentzia-prezioen bidegabekeria eta inbertsioak sustatzeko figurak desagerrarazi; eta finantza-salerosketen gaineko nazioarteko zerga bat sortu. Gainera, beharrezkoa da ogasun publikoen ahalmenak sendotzea, beste zerga-sistema bat ezar dezaten: progresiboa, ingurunearekin konpromisoa duena, eta korporazioen eta fortuna handien gaineko zerga handiak jarriko dituen.
6. **Zor ilegala, higuinagarria eta eutsiezina ez ordaintzea.** Herritarrek ikuskapenak egitea proposatzen da, zorraren izaera argitu dezaten, eta, zorren bat ilegaltzat eta higuinagarriztat joz gero, hura ez ordaintzea alde bakarretik erabaki dezaten. Gainerako zorren zenbatekoa eutsiezina izango balitz, berregituratu egin beharko litzateke, alde anitzeko eta protokolizatutako esparruetan, putre-funtzen jarduera eragozteko.
7. **Erosketa Publiko Sozialki Arduratsuaren aldeko apustua.** Erosketa publikoa alternatiba espezifikoko erregulatzeko eta sustatzeko tresna garrantzitsua dela adierazten da. Beraz, erosketa publikoko eragiketetan askotariko klausulak (lanekoak, gizarteratzekoak, emakume eta gizonen berdintasunekoak, ingurumenekoak, etab.) derrigorrez sartzea proposatzen da. Horrez gain, klausulen bidez, elikadura-subiranotasuneko prozesuak eta ekonomia alternatiboko formulak sustatu beharko lirateke.
8. **Lan-harreman duinen tokiko eta nazioarteko esparrua.** Lana garrantzi handiko zibilizazio-baliotzat hartzen da. Hala izango bada, nazioarteko lan-araudiek hertsatzaile, justiziagarri eta nahitaezkoak izan behar dute. Halaber, sindikalismoa eta negoziazio kolektibo orokorra talde korporatibo osoan (jatorriko etxeen eta ordezkartzen arteko dikotomia hautsiz) sustatu nahi dira. Bestalde, deslokalizazioak galarazteko inplikazio publikoa ere bultzatu nahi da.
9. **Zainketa-lanak duintzea eta demokratizatzea.** Lan kontzeptuari buruzko ikuspegi zabala proposatzen da, bizitzaren iraupenerako beharrezkoak diren zeregin guztiak barne hartzeko. Hortik abiatuta, lana duintzeko eta demokratizatze arauak garatzea proposatzen da. Horretarako, desmerkantilizazioa, inplikazio publikoa eta zainketa-lanekin lotutako genero-asimetriei (eta, ildo horretan, klase- eta etnia-/arrazas-asimetriei) buruzko hausnarketa uztartzen dituzten logikak erabili behar dira.

10. **Enpresa transnazionalak eta giza eskubideak erregulatzeko esparru globala.** Bereziki azpimarratzen da korporazio handien eta giza eskubideen arteko loturaren erregulazioa (giza eskubideen berrikusketa kritiko batetik), estatuentzat zein gizarte- eta enpresa-eragileentzat baliagarria izango litzatekeen tratatu baten bidez. Tratatu galdagarri, justziagarri eta kodetua izango litzateke, eta, besteak beste, printzipio hauek defendatu eta babestuko lituzke: jurisdikzio unibertsala, lurraldez kanpokotasuna, erantzukizun solidarioa eta egozpen bikoitza.
11. **Lurraldea, bizitzaren antolaketa alternatiboaren subjektu politiko gisa.** Erregulaziotik alternatibara igarota, demokrazia berrasmatzea eta zabaltzea proposatzen da, zuzeneko eta partaidetzazko demokrazia-formulak erabiliz. Izan ere, herri-botereko eta subiranotasun demokratikoko beste instituzionalitate batzuk sor daitezke lurraldearen eta ondasun komun edota estrategikoen inguruan.
12. **Energia-subiranotasuna, guztion ongia.** Beharrezkoa eta premiazkoa da energia-ereduaren ikatzarekiko mendekotasunarekin amaitzea, sektoreak merkatuan duen garrantzia ikuspegi publiko-komunitario batetik txikitzea, eta tokiko eredu ekonomikoa energia-trantsizioaren ikuspegitik aztertzea.
13. **Zainketa, komunitatearen arreta-gunea.** Autokudeaketa komunitarioa herri-boterearen bidez zabaltzea proposatzen da. Ildo horretan, bizi-harremanak desmerkantilizatu eta desmonetizatu behar dira, eta zainketak emantzipazio-prozesu orearen ardatz nagusitzat ezarri ere bai.
14. **Produkzioa, guztion ongiaren aldeko lanean oinarritua.** Lana, demokrazia, guztion ongia eta iraunkortasuna defendatu behar dira, eta, horretarako, ekonomia alternatiboa sustatzen da. Hala ere, harago joan beharra dago: merkatu kapitalistei eremuak kentzen dizkieten sistema integratuak garatu behar dira, erantzunkidetasun-ikuspegi batetik abiatuta.
15. **Kontsumo txikiagoa eta arduratsua.** Kontsumo txikiagoa lortzea da helburua, asimetriak alde batera utzi gabe: alde batetik, Iparralde globalaren eta Hegoalde globalaren artekoak; eta, beste batetik, bizitza erreproduzitzeko kontsumoaren eta merkatua zabaltzeko kontsumoaren artekoak. Kontsumoa txikitzeko prozesua demokratikoki planifikatuko da, eta arduraz adieraziko da araudietan.
16. **Banka etiko baterantz.** Finantza-arloan arauak kentzeko eta konplexutasuna handitzeko prozesua atzera itzultzearen alde egiten dugu. Jabetzak eta kudeaketak publiko-komunitarioa izan behar dute, eta lurraldean eta ekonomia alternatiboko sistemetan txertatuta eta inplikaturik egon.
17. **Komunikazioa demokratizatzea: anitza eta ez korporazioen mendekoa.** Komunikazioa eskubidetzat hartzea proposatzen da, hedabideak korporazio gutxi batzuen eskuetan pilatzea eta merkatuaren mende egotea eragozte aldera. Horrekin batera, hedabide komunitario edota alternatiboak sustatu behar dira, legeek eta politika publiko aktiboek babestuta.
18. **Botere korporatiboaren kontrako salaketa eta eragina.** Enpresa handien inpaktuak salatu behar direla nabarmentzen da. Hainbat ekimen gauzatu daitezke horretarako, herritarrengan kontzientzia kritikoa sortzeko: sentsibilizazio-kanpainak, boikota, herri-auzitegiak, etab.
19. **Herriko jakintzak, korporazioen eraginik gabeko bizitza baterako.** Ezagutza-formula guztiak balioesteko, jakintza-ekologia bat proposatzen da. Ildo horretan, unibertsitate publikoa defendatzen da, korporazioen eraginik gabea, eta ikerketa kritikoko, eragin politikoko eta herri-heziketako esperientzia sozialak sustatzen.
20. **Botere korporatiboaren kontrako agendak eta estrategiak sustatzea.** Laburbilduta, enpresa transnasionalei aurre egiteko estrategiak formulatu eta ezarri behar direla azpimarratzen da; hori da botere korporatiboa eraisteko modurik onena. Horretarako, logika artikulatu, integral eta trantsiziozko batean oinarritutako ekimenak –askotarikoak eta anitzak– hartu behar dituzte barne estrategia horiek.

7. irudia. Esparru-agendako 20 proposamen eta 90 neurri politiko

1. proposamena: Megaproiektuen aurkako herri-mobilizazioa

1. Mobilizazio sozial luzeak sustatzea.
2. Kohesio komunitarioarekiko eta haren aniztasunaren antolaketarekiko konpromisoa hartzea.
3. Zuzeneko demokraziako jarduerak garatzea.
4. Tokian zein nazioartean antolatzea.
5. Lurraldea juridikoki defendatzea.
6. Erresilientzia komunitarioko estrategiak proposatzea.

2. proposamena: Gobernantza global korporatiboaren ereduaren aurrerapena geldiaraztea

7. Eskualdeko eta nazioarteko merkataritza- eta inbertsio-tratatu berriak geldiaraztea, eta indarrean daudenek atxikipen gehiago lor ditzaten eragozte.
8. Indarrean dauden Alde Biko Inbertsio Tratatuak (ABIT) salatzea eta tratatu berriak sina daitezten eragozte.
9. Agenda hegemonikoan inplikaturako alde anitzeko egiturak baztertzea eta alde batera uztea.
10. Eskualdeko integrazio-egitura alternatibo berriak eratzen parte hartzea.

3. proposamena: Guztiona defendatzea eta desmerkantilizazioa

11. Enpresa eta sektore publikoen merkantilizazioa saihestea.
12. Merkantilizazioaren aurrean, zuzeneko demokraziako jarduerak sustatzea.
13. Eskubide-, zerbitzu- eta babes sozialeko sistema publikoa defendatzea.
14. Sektore eta enpresa estrategikoak desmerkantilizatzea.
15. Ondasun komun eta/edo estrategikoak berriro udalekotzea.

4. proposamena: Goitik beherako nekazaritza-erreforma, korporazioek lurak pilatzea eragozteko

16. Mobilizatzea eta lurak bakez okupatzea.
17. Pilatutako lurak desjabetzea.
18. Elikadura burujabetza lehentasun konstituzional gisa ezartzea.
19. Eskualdeko politikak bertan behera uztea, agronegozioaren alde.
20. Nekazaritza-erreformarako estrategia politiko integralak erabiltzea, elikadura-burujabetza aintzat hartuta.

5. proposamena: Korporazioen zerga-saihestea eta zerga-ihesa etetea

21. Urteko derrigorrezko txostenak eskatzea, talde korporatibo bakoitzean.
22. Zerga-arloko jarraipenerako eta kontrolerako egitura eta sistema sortzea.
23. Ogasun publikoen ahalmenak ugaritzea eta erregimen zigortzailea gogortzea.
24. Transferentzia-prezioak erregulatzea.
25. Zerga-paradisua debekatzea.
26. Finantza-salerosketen gaineko zerga bat sortzea.
27. Inbertsioa sustatzeko figurak kentzea.
28. Zerga-sistema progresibo eta ingurunearekin konprometitu baten alde egitea.

6. proposamena: Zor ilegal, higuingarria eta eutsiezina ez ordaintzea

- 29. Antolaketa sozialeko tokiko, estatuko, eskualdeko eta nazioarteko sareak indartzea, zorraren aurrean.
- 30. Herritarrek zorraren ikuskapenak egitea.
- 31. Zor ilegal, higuingarri eta eutsiezinari uko egitea eta ez ordaintzea
- 32. Zor legal eta eutsiezina berregituratzea, ordenatutako eta alde anitzeko esparru batean.

7. proposamena: Erosketa Publiko Sozialki Arduratsuen aldeko apustua

- 33. Klausula sozialen derrigorrezkotasunerantz igarotzea.
- 34. Klausula sozialaren kontzeptua zabaltzea, ikuspuntu inklusibo batetik.
- 35. Ekonomia solidarioko eta elikadura-subiranotasuneko prozesuen alde egitea.
- 36. Tokiko esparruan erosketa publiko sozialki arduratsua sendotzea.
- 37. Erosketa publiko sozialki arduratsua erakunde-esparru guztietara hedatzea.

8. proposamena: Lan-harreman duinen tokiko eta nazioarteko esparrua

- 38. Sindikalismo borrokalari bat behetik indartzea.
- 39. Negoziatio kolektibo global bat ezartzea talde korporatibo osorako.
- 40. Nazioarteko azpikontratazioa/tertziarizazioa eta deslokalizazioak eragozteak.
- 41. Langileentzat onuragarrienak diren lan-esparruen alde egitea.
- 42. Derrigorrezko lan-esparru global bat barne hartzen duen Enpresa Transnazionalei eta Giza Eskubideei buruzko Tratatu Lotesle baten onarpena sustatzea.

9. proposamena: Zainketa-lanak duintzea eta demokratizatzea

- 43. Zainketei buruzko eztabaida kritikoak, hausnarketa kolektiboak eta beste ikuspegi batzuk sustatzea.
- 44. Lan-erantzunkidetasuneko neurriak ezartzea.
- 45. Mendekotasun handiarekin lotutako esparruetan lan egiteko hautaketa pertsonala bideratzen duten politika publikoak sustatzea.
- 46. Sektore pribatuak zainketen esparruan egiten duen lana duintzea eta balioestea, erosketa publiko sozialki arduratsuari dagozkion klausula sozialen bidez.
- 47. Zainketen esparrua desmerkantilizatzea, elementu komunak defendatuz.
- 48. Zainketei buruzko ikuspegi zabal batean oinarrituta, estrategia integralak proposatzea.

10. proposamena: Enpresa transnazionalak eta giza eskubideak erregulatzeko esparru globala

- 49. Enpresa transnazionalak erregulatzeko nazioarteko sareak indartzea.
- 50. Tratatu galdagarri, justiziagarri eta kodetu bat onartzea, giza eskubide kontzeptuaren berrikusketa kritiko eta eguneratu batetik abiatuta.
- 51. Nazioarteko legezketasuna beste subjektu batzuetara zabaltzea, eta jurisdikzio unibertsala, lurraldez kanpokotasuna, erantzukizun solidarioa, egozpen bikoitza eta beste balio batzuk sustatzea.
- 52. Korporazio Transnazionalei eta Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Gortea eta Enpresa Transnazionalen Kontrolerako Zentro Publikoa sortzea.

11. proposamena: Lurraldea, bizitzaren antolaketa alternatiboaren subjektu politiko gisa

- 53. Zuzeneko demokraziako tokiko formulak inplementatzea.
- 54. Partaidetzazko demokraziako tokiko formulak inplementatzea.
- 55. Ekimen sozial eta komunitario autonomoak bultzatzea.
- 56. Herri-botereko eta subiranotasun demokratikoko beste instituzionalitate batzuk sortzea lurraldearen eta ondasun komun edota estrategikoen inguruan.

12. proposamena: Energia-subiranotasuna, guztion ongia

- 57. Energia-megaproiektuak debekatzea.
- 58. Energia-ereduaren ikatzarekiko mendekotasunarekin amaitzea.
- 59. Energia-sektorea desmerkantilizatzea, itun publiko-komunitario baten mesedetan.
- 60. Tokiko eredu ekonomikoa aztertzea, energia-trantsizioaren ikuspegitik.

13. proposamena: Zainketa, komunitatearen arreta-gunea

- 61. Zainketen esparruan irabazi-asmorik gabeko elkarteak sustatzea.
- 62. Denbora-bankuak sustatzea.
- 63. Zainketa kolektiboko, belaunaldien arteko zainketako eta hazkuntza-zainketako sareetan parte hartzea.
- 64. Autokudeaketa komunitarioko herri-eremuak sustatzea.
- 65. Plangintza demokratikoak kolektiboki eratzeko prozesuak sustatzea lurraldean, ardatz nagusietako bat zainketak dituztenak.

14. proposamena: Produkzioa, guztion ongiaren aldeko lanean oinarritua

- 66. Printzipio alternatiboetan oinarritutako esperientzia ekonomikoak sustatzea.
- 67. Ekonomia alternatiboaren alde egitea, sozialki zein politikoki.
- 68. Ekonomia alternatiboko estrategia, programa eta sistemak sustatzea, eta haietan parte hartzea.
- 69. Erantzukidetasun publikoa azpimarratzea, ekonomia alternatiboko estrategia eta programa integralak bideratzean.

15. proposamena: Kontsumo txikiagoa eta arduratsua

- 70. Kontsumo txikiagoa eta arduratsua sustatzeko politika publikoen alde egitea, sozialki eta politikoki.
- 71. Merkaturatze-zirkuitu txikietan parte hartzea.
- 72. Elementu estrategikoetako bat kontsumo arduratsua duten ekonomia alternatiboko sistemak sustatzea, eta haietan parte hartzea.

16. proposamena: Banka etiko baterantz

- 73. Finantza-sektorea arautzea: funts propioak handitzea; galeren sozializazioa debekatzea; akziodun handien kasuan, erantzukizun mugagabea ezartzea; etab.
- 74. Banku-sektorea berregituratzea, haren tamaina txikituz, gordailu-bankuak eta inbertsio-bankuak bereiziz, eta banku-produktuak arautzeko esparru bat ezarriz.
- 75. Errentismoa eta espekulazioa desagerraraztea, deribatuak eta haien titulizazioa debekatuz.
- 76. Banku-sekretua kentzea.
- 77. Gastu publikoaren banku-finantziazioaren alde egitea.
- 78. Banka ondasun erkide moduan ulertu eta bultzatu, egitura publiko eta sozial/komunitario baten bidez.
- 79. Ekonomia alternatiboko sistemen alde egitea, banku etikoak sustatuz.

17. proposamena: Komunikazioa demokratizatzea: anitza eta ez korporazioen mendekoa

- 80. Komunikaziorako eskubidea konstituzioan onartzea.
- 81. Frekuentziak sektore pribatuaren, publikoaren eta komunitario/sozialaren artean berdintasunez banatu behar direla azpimarratzea.
- 82. Hedabide alternatiboei laguntzeko programa integralak sustatzea.
- 83. Herri-logiketarik bultzatutako komunikazio alternatiboko ekimen eta prozesuetan parte hartzea.

18. proposamena: Botere korporatiboaren kontrako salaketa eta eragina

- 84. Enpresa transnasionalek pilotutako boterearen kontra borrokatzeko sare global espezifikoak sustatzea eta haietan parte hartzea.
- 85. Enpresa transnasionalekin lotutako sentsibilizazio-, eragin- eta boikot-kanpainak sustatzea, eta haietan parte hartzea.
- 86. Botere korporatiboaren kontrako herri-epaiketako ekimenak sustatzea, tresna politiko eta pedagogiko gisa, eta haietan parte hartzea.

19. proposamena: Herriko jakintzak, korporazioen eraginik gabeko bizitza baterako

- 87. Unibertsitate publikoa defendatzea, enpresa transnasionalen eraginik gabea, unibertsala eta kalitatezkoa.
- 88. Unibertsitate publikoetan *hezkuntza emantzipatzaileko* eremuak sustatzea.
- 89. Botere korporatiboan eragin politikoa izango duten ikerketa- eta prestakuntza-zentro eta -eremu sozialak sustatzea, eta haietan parte hartzea.
- 90. Herri-hezkuntzako esperientzia, prozesu eta eremuak sustatzea, herriak eta mugimendu sozialak emantzipatzeko prestakuntza-tresna estrategiko gisa, eta haietan parte hartzea.


20. proposamena: Botere korporatiboaren kontrako agendak eta estrategiak sustatzea

Iturria: Egileek egina.

Labur-labur esanda, gure esparru-agendako 6 premiseek, 6 gakoek, 20 proposamenek eta 90 neurri politikoez hari antolatu bat eratzen dute, botere korporatiboari aurre egiteko. Dena den, lehenago azaldu dugunez, asmoa ez da agenda hori bakarrik izatea; izan ere, beharrezkoa da testuinguruetara eta askotariko subjektuen ahalmenetara egokitzea. Hain zuzen, enpresa transnasionalek pilotzen duten botereari buruzko hausnarketa eta haren kontrako ekimenak bideratu nahi dituen intsumo bat da; hortaz, zibilizazio-gako alternatiboak proposatzen ditu. Puntu eta jarrai bat da, beraz, ez amaiera-puntu bat.


3. Botere korporatiboa eraisteko gomendioak

Aurreko kapituluan laburbildutako esparru-agendaren ezaugarrietako bat erantzunkidetasuna da. Ildo horretan, ekitera bultzatzen ditu hainbat eragile sozial eta politiko –ahal dela, modu antolatuan–, botere korporatiboa eraisteko. Argitalpenaren azken zati honen helburu nagusia dei kolektibo horri erantzuteko aukerak ematea da, estrategikotzat hartzen diren subjektuei ekimen politiko espezifikoak proposatuz. Azken batean, esparru-agendako proposamen eta neurriak zehaztea da kontua, korporazio handien aurkako borrokan kontuan hartu beharreko zereginen bat duten eragileen oinarritzko ahalmen eta gaitasunak aintzat hartuta.



Iturria: Egileek egina.

Gaur egun, enpresa transnazionalak pilotutako botereari aurre egiteko, honako hauek dira, gure iritziz, oso zeregin garrantzitsua duten eragileak: estatuko gobernuak, tokiko gobernuak, mugimendu sozialak eta herritarrak. Lehen bi eragileei dagokienez, eta globalizazio neoliberalerako prozesuan gertatutako aldaketa sakona gorabehera, ezin diote muzin egin guztion ongiaren, demokraziaren eta, azken finean, bizitzaren iraunkortasunaren defentsari. Ildo horretan, eta aurreago adierazi dugunez, arlo publikoa borroka-agertoki bat ere bada; hartan, enpresa handiek erakunde publikoen izaera (interes orokorraren mendean dagoena) indargabetu nahi dute. Hortaz, erakunde publikoen izaera horren elementu nagusi eta intrintsekoetako bat da botere korporatiboaren kontrako borroka. Horri dagokionez, eta egungo egoera zailari erreparatuta, administrazioek bi norabidetan bideratu beharko lituzkete euren ahaleginak (Santos, 2014). Norabide horietako bat *erregulazioa* da: enpresa eta merkatuen jarduera-esparrua mugatzea eta kontrolatzea. Bestea *emantzipazioa* da: zibilizazio-krisi honetan bizitza antolatzeko beste modu batzuk sustatzea.



Iturria: Egileek egina.

Beraz, erakunde publikoen zeregina garrantzitsua da, eta hori bezain garrantzitsua da mugimendu sozialena. Mugimendu sozialak dira, euren aniztasunean, emantzipazio-agendak neurri handiago batean eta indar handiagoz defendatzen dutenak, zibilizazio-trantsizioa lortzeko. Hori dela eta, eragile estrategikoak dira egoera zail historiko honetara lotzen gaituzten balio, egitura eta dinamikak goitik behera aldatzeko. Alegia, lantzaren punta dira botere korporatiboaren kontrako zuzeneko borrokan. Beraz, parte-hartze aktiboa dute erresistentzietan, erregulazioaren aldeko ekimenetan eta alternatiben eraketan, gure esparru-agenda egituratzen duen harian zehar. Azkenik, gehiengo soziala osatzen dugunok –langile-klasearen inguruan antolatutako subjektu anitz, askotariko eta zabalak– potentzialtasun handia eta erantzukizun handia daukagu botere korporatiboa eraisteko. Horretarako, gure subiranotasun eta autonomia politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala gauzatu behar dugu.

Eragile bakoitzari dagozkion gomendioak jorratu aurretik, garrantzitsua da egindako ariketaren ikuspegia ulertzen lagunduko diguten zenbait aldagai kontuan hartzea:

1. Beharrezkoa da gomendioak eragile jakin bakoitzaren egoeraren, posizioaren, testuinguruaren eta ahalmen espezifikoaren arabera egokitzea. Ildo horretan, esperientzia zehatzetatik ondorioztatutako iradokizun orokorrak dira, baina, egoera bakoitzera egokitu ezean, ez dute inongo baliorik.
2. *Erresistentzia-erregulazioa-alternatiba* trantsizio-logika baten arabera eraturako gomendioak dira. Jakina, logika hori ere kasuan-kasuan egokitu behar da. Beraz, esparru-agendak hari eroale jakin bat iradokitzen du. Horri esker, agendaren ikuspegi holistikoa izan dezakegu, estrategia politiko jakinen bidez zehaztu beharrekoa.
3. Gomendioak eragile bakoitzaren oinarritzko gaitasun eta ahalmenei dagozkie, bereziki. Horrek ez du esan nahi estrategiak erantzunkidetasun-logika bati jarraituz prestatzea ez denik botere korporatiboa eraisteko gure asmoaren oinarritzko erreferentzia bat. Eragile bakoitzaren gaitasunak argitzea da helburua, baina, hala ere, behar-beharrezkoa da antolaketa erantzunkide bat bilatzea. Zentzu horretan, egindako proposamen askok harrera hobea eta eragin handiagoa izan dezakete, antolaketa-dinamiketan antzekoak diren edo izaera mistoa duten eragileek parte hartzen badute.
4. Zirriborro gisa pentsatutako gomendioak dira; alegia, etengabe eratzten ari den prozesu dinamiko eta ireki baten zati dira; beraz, ez dira ibilbidearen amaiera, puntu eta jarrai bat baizik. Beraz, kritikoki jardun beharra dago, eta prozesu hori etengabe elikatu, baita estrategia jakinen bidez zehaztu ere.

Premisa horien arabera, esparru-agendako 20 proposamenak zehaztuko ditugu orain, lau eragileek jarraitu beharreko gomendioen bidez, betiere, zibilizazio-trantsizioaren logika baten hari eroaleari jarraituz.

a. Gomendioak estatu-gobernuntzat

Gaur egun, estatu-gobernuek funtsezko eginkizuna dute munduko gobernantzaren egiturari, eta, aldi berean, tokiko eta nazioarteko esparruen arteko beharrezko lotura dira. Alde batetik, estatuko gobernuek osatzen duten eskualdeko eta alde anitzeko egitura enpresa transnazionalak euren boterea finkatzeko eta indartzeko lehentasunezko hartzen duten eremua da, lehenago esan dugunez. Halaber, beste alde batetik, estatuak mugatu egiten dituzte lurraldeek eta haietako erakundeek alternatibak sustatzeko dituzten autonomia eta ahalmenak; hain zuzen, horrek kapitalaren eta bizitzaren arteko borrokarik esplizituena uzten du agerian. Beraz, estatuak potentzialtasun eta erantzukizun handia dute botere korporatiboaren kontrako borrokarik dagokionez.

Horretarako, aurreago azaldu dugunez, beharrezkoa da estatuak erregulazio- eta emantzipazio-logika osagarriak uztartzea. Ildo horretan, estatuko gobernuek (batez ere, nazioarte-mailan antolatzen badira) oso zeregin garrantzitsua izan dezakete gutxienezko demokratiko batzuk defendatzeko, politikak ekonomia kapitalistarekiko duen mendekotasunarekin amaitzeko, demokraziarako eta interes orokorrerako eremuak berreskuratuta. Baina, gainera, estatuak bizitza antolatzeko modu alternatiboak sustatzeko ikuspegi emantzipatzailea garatu behar dute. Beraz, alde batetik, lanean, guztion ongian, aniztasunean eta iraunkortasunean oinarritutako ekonomiaren eremuak zabalduko dituzten politikak formulatu eta ezarri behar dituzte, energia-trantsizioan arreta berezia ipiniz. Beste batetik, ezin dute tokiko eta nazioarteko

esparruen artean dagoen asimetria alde batera utzi. Asimetria hori desagerrarazi behar dute. Horretarako, beste gobernantza bat sustatu behar dute munduan, zuzeneko eta partaidetzazko demokrazian oinarritua, gobernantza korporatiboa baztertzeko duena, lurraldea eremu estrategiko gisa sustatzen duena.

Hortaz, estatuko gobernuak irauteko eta erregulatzeko (arlotan, funtsezko zeregina dute) gaitasunak dituzten eragileak dira, baina baita etorkizunerako egoera ekonomiko eta politiko alternatiboak proposatzeko ere, nazioarteko agertokian posizio garrantzitsua baitute oraindik ere.

Premisa horietatik abiatuta, eta askotariko testuinguru eta egoeretara egokitu beharra dagoela kontuan hartuta, honako gomendio hauek egiten dizkiegu estatuko gobernuari:

I. proposamena. *Megaproiektuen aurkako herri-mobilizazioa:*

- Besteak beste, lan-, ingurumen-, gizarte- eta energia-arloetako legeak gogortzea, giza eskubideen eta emantzipazio-agenden nazioarteko esparruaren arabera.
- Megaproiektuetarako inbertsioak erakartzeko laguntza publikoak kentzea.
- Megaproiektuak aztertzeko eta ezartzeko baimenik edo lizentziarik ez ematea.

II. proposamena. *Gobernantza global korporatiboaren aurrerapena geldiaraztea:*

- Inpunitatearen arkitekturatik bereiztea, indarrean dauden merkataritza- eta inbertsio-tratatuak –alde bikoak zein eskualdekoak– salatuz; eta TTIP, TPP, CETA, TISA eta bestelako tratatuak –eskualdekoak eta globalak– onartzeari uko egitea.
- Botere korporatiboa defendatzen jarduerak handia duten eragileekin –hala nola, NDFrekin, arbitraje-auzitegiekin eta Munduko Bankuko CIADirekin– harremanak etetea.
- Eskualdeko egiturak (Europar Batasuna, Andeetako Komunitatea, etab.) sakon berrikustea eta/edo goitik behera definitzea, bizitza, demokrazia, guztion ongia eta iraunkortasuna defenda ditzaten. Ez dira alde bakarreko neurriak baztertu behar.

III. proposamena. *Elementu komunak defendatzea: ondasun komun eta/edo estrategikoak merkatutik kentzea:*

- Ondasun komun eta estrategikoen jabetza eta kudeaketari buruzko erreferenduma eta zuzeneko demokraziako prozesuak sustatzea.
- Zerbitzuen eta babes sozialaren sistema publikoa sendotzea, elementu komunen emantzipazioari buruzko ikuspegi batetik.
- Ondasun komunekin (ura, energia, ezagutza, osasuna, elikadura, etab.) eta ondasun estrategikoekin (finantzak, garraioa, etab.) jarduten duten enpresa eta sektoreak desmerkantilizatzea.

IV. proposamena. *Goitik beherako nekazaritza-erreforma, korporazioek lurak pilatzea eragozteko:*

- Konstituzioan elikadura eskubidetzat hartzea, eta elikadura-burujabetza, helburu politikotzat.
- Pilaketaren logikaren barruan dauden lurak desjabetzea, ekonomia ulertzeko modu alternatiboetarako erabilte aldera.
- Agronegozioaren aldeko politikak –besteak beste, Nekazaritza Politika Bateratua eta Estatu Batuetako Farm Bill delakoa– alde batera uztea, eta haien kontra egitea.
- Nekazaritza-erreformako prozesuak gauzatzea, ikuspegi integral batetik eta erreferentziazat elikadura-burujabetza hartuta. Ildo horretan, lurra berdintasunez banatu behar da, baita nekazaritza-ekonomietan, agroekologian eta herri-boterean oinarritutako eredu bat bultzatu ere.

V. proposamena. *Korporazioen zerga-saihestea eta zerga-ihesa etetea:*

- Ogasun publikoen ahalmenak ugartzea eta erregimen zigortzailea gogortzea.
- Zerga-politika progresiboa ezartzea. Besteak beste, lurraldearekin lotura izan behar du, eta transferentzia-prezioen fenomenoaz aztertu eta inbertsioaren aldeko figurak ezabatu.
- Estatuan jardun nahi duen talde korporatibo bakoitzari zerga-egozpeneko txosten global bat eskatzea urtero, nahitaez egin beharrekoa.
- Korporazio handiak kontrolatzeko egitura global bat sortzearen alde egitea.
- Zerga-paradisua desagerraraztearen alde egitea.
- Finantza-salerosketen gaineko nazioarteko zerga bat sortzearen alde egitea.

VI. proposamena. *Zor ilegala, higuigarria eta eutsiezina ez ordaintzea:*

- Zorrari buruzko herri-ikuskapen bat sustatzea.
- Zor ilegala eta higuigarria ez ordaintzea, eta estrategia ekonomiko alternatibo bat proposatzea.
- Nahitaezko zorra hartzekodun guztiekin negoziatzeko alde anitzeko egitura eta sistema bat sustatzea, Argentinak 2014ko irailean Nazio Batuen Batzar Orokorrean aurkeztutako proposamenaren ildoan; proposamen horrek putre-funtsen jarduera galaraztea du helburu.
- Zoreutsiezirik balego, hura alde anitzeko esparru batean berregitura dadin proposatzea. Derrigorrezkoa izango litzateke hartzekodun guztientzat.

VII. proposamena. *Erosketa Publiko Sozialki Arduratsuaren aldeko apustua:*

- Gizarte-, lan- eta ingurumen-klausulak erosketa publikoko eragiketa orotan derrigorrezkoak izatea.
- Ekonomia alternatiboko eta elikadura-subiranotasuneko prozesuei (ekonomia solidarioa, ekonomia komunitarioa, herri-ekonomia, enpresa berreskuratuak, etab.) lehentasuna ematea.
- Erosketa publikoaren baldintzen jarraipena egiteko eta estatuak onartzeko sistema eta egitura bat ezartzea.

VIII. proposamena. *Lan-harreman duinen tokiko eta nazioarteko esparrua:*

- Langileen eskubideak kaltetzen dituzten lan-erreforma guztiak leheneratzea.
- Nazioarteko lan-legeetan jasotako lan-eskubide guztiak bermatzea.
- Sindikalizazioaren aldeko lege eta politika aktiboak sortzea.
- Lana balio gisa defendatzea eta, horretan oinarrituta, negoziazio kolektiboko formulak sustatzea, langileentzat onuragarrienak diren eskumen-esparruetan.
- Deslokalizazioa zigortzea eta hura bideratzen duten laguntzak kentzea.
- Lan-alderdiei lehentasuna ematen dien Enpresa Transnasionalei eta Giza Eskubideei buruzko Tratatu Lotesle baten alde egitea.

IX. proposamena. *Zainketa-lanak duintzea eta demokratizatzea:*

- Lan-erantzunkidetasuneko politikak sustatzea.
- Mendekotasun handiarekin lotutako esparruetan lan egiteko hautaketa pertsonala bideratzen duten politika publikoak sustatzea.

- Sektore pribatuak zainketen esparruan egiten duen lana duintzea eta balioestea, erosketa publiko sozialki arduratsuari dagozkion klausula sozialen bidez.
- Zainketen esparrua desmerkantilizatzea, elementu komunak defendatuz.
- Zainketei buruzko ikuspegi zabal batean oinarrituta, eta ikuspegi sektorialetik harago, estrategia integralak proposatzea.

X. proposamena. *Enpresa transnazionalak eta giza eskubideak erregulatzeko esparru globala:*

- Enpresa Transnationalei eta Giza Eskubideei buruzko Tratatu Lotesle baten alde egitea.
- Korporazio Transnationalei eta Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Gortea sortzea.
- Enpresa Transnazionalen Kontrolerako Zentro Publikoa sortzearen alde egitea.

XI. proposamena. *Lurraldea, bizitzaren antolaketa alternatiboaren subjektu politiko gisa:*

- Lurraldearen autonomia eta subiranotasunaren alde, deszentralizazio-prozesuak beren-beregi babestea, ikuspuntu integral batetik (eskumenak, zerga-sistema, aurrekontua, etab.).
- Zuzeneko demokraziaren modalitate guztien alde egitea, batik bat lurraldea eta ondasun komun edota estrategikoak defendatzeko.
- Partaidetzazko demokraziako prozesuak sustatzea, besteak beste plangintzen eta aurrekontuen kasuan.

XII. proposamena. *Energia-subiranotasuna, guztion ongia:*

- Energia-megaproiektuak debekatzea.
- Energia-sistemaren ikatzarekiko mendekotasuna txikitzea, energia berriztagarrien aldeko politika aktiboak sustatuz.
- Sektorea desmerkantilizatzea, nazionalizatuz eta hartan beste itun publiko-komunitario bat bideratuz.
- Lehentasun politikoak berrikustea energia-subiranotasunari eta -trantsizioari buruzko gakoetan oinarritutako ikuspuntu integral batetik.

XIV. proposamena. *Produkzioa, guztion ongiaren aldeko lanean oinarritua:*

- Konstituzioan aniztasun ekonomikoa baliotzat adieraztea, irabazi-asmoarekin zerikusirik ez duten formula alternatiboek garrantzi berezia emanez.
- Aniztasun ekonomikoaren aldeko politika publiko integrala proposatzea, politika sektorialaz harago.
- Araudi ekonomikoa egokitzea, askotariko formula ekonomikoak ere aintzat har ditzan.
- Erosketa publikoaren bidez, lanean, guztion ongian, demokrazian eta iraunkortasunean oinarritutako ekonomia alternatiboko esperientziak sustatzea.

XV. proposamena. *Kontsumo txikiagoa eta arduratsua:*

- Azalera handiko saltokiak eta kontsumo masiboa sustatzen duten beste egitura batzuk mugatzea, tokiko saltokien mesedetan.
- Publizitatea mugatzea.
- Energian eta materialetan (ontziak, birziklapen-sistemak, etab.) kontsumo arduratsua sustatzeko arauak ematea.

XVI. proposamena. *Banka etiko baterantz:*

- Finantza-sektorea arautzea: funts propioak handitzea; galeren sozializazioa debekatzea; akziodun handien kasuan, erantzukizun mugagabea ezartzea; etab.
- Banku-sektorea berregituratzea, haren tamaina txikituz, gordailu-bankuak eta inbertsio-bankuak bereiziz, eta banku-produktuak arautzeko esparru bat ezarriz.
- Errentismoa eta espekulazioa desagerraraztea, deribatuak eta haien titulizazioa debekatuz.
- Banku-sekretua kentzea.
- Gastu publikoaren banku-finantziazioaren alde egitea.
- Banka ondasun erkide moduan ulertu eta bultzatu, egitura publiko eta sozial/komunitario baten bidez.
- Ekonomia alternatiboko sistemen alde egitea, banku etikoak sustatuz.

XVII. proposamena. *Komunikazioa demokratizatzea: anitza eta ez korporazioen mendekoa:*

- Komunikaziorako eskubidea konstituzioan onartzea.
- Komunikazioa demokratizatzeko arauak ematea; besteak beste, berdintasunezko minimo eta maximoak ezartzea ekimen pribatu, publiko eta sozio-komunitarioei.
- Aniztasuna aintzat hartu, babestu eta agerian jartzen duen komunikazioaren aldeko egiturak ezartzea.
- Esperientzia sozio-komunitarioak babestea, politika publiko integralen bidez.

XVIII. proposamena. *Botere korporatiboaren kontrako salaketa eta eragina:*

- Lurraldean jatorriko etxea duten korporazioen inpaktuak salatzeko eta zigortzeko inplikatzeko, lurraldez kanpokotasunaren logika batetik.

XIX. proposamena. *Herriko jakintzak, korporazioen eraginik gabeko bizitza baterako:*

- Unibertsitate publikoaren autonomia bermatzea, enpresa transnazionalen eraginik gabe eta hezkuntza emantzipatzaile baten alde.
- Botere korporatiboan eragina duten ikerketa kritikoko esperientzia sozialak babestea.

XX. proposamena. *Botere korporatiboaren kontrako agendak eta estrategiak sustatzea:*

- Botere korporatiboa progresiboki eraisteko estrategia integral eta trantsiziozko bat planifikatzea.

b. Gomendioak tokiko gobernuentzat

Lurraldea da gure agendaren erreferentzia-esparru teoriko-politikoaren oinarria. Beraz, hartan jarduten duten eragile guztiek zeregin garrantzitsua dute. Batez ere, tokiko esparruan botere korporatiboaren eta agenda alternatiboaren arteko zuzeneko borroka gauzatzen dela kontuan hartuta. Erakunde publikoek borroka horretan hartu behar dute parte, erregulazioaren eta emantzipazioaren ikuspegi osagarria ahalik eta gehien garatuz, bakoitzaren ahalmenen arabera. Hain zuzen ere, emantzipazioa –alegia, gure erreferentzia-esparruaren etorkizuneko egoerak zehazten dituzten sei gakoetan aurrera egiten lagunduko duten politiken garapena– oso garrantzitsua da tokiko esparruan; izan ere, aurreago azaldu dugunez, eremu pribilegiatutzat hartzen dugu. Hortaz, gure ustez, erakunde publikoek den-dena eman behar dute zibilizazio-trantsiziozko eremuak sortzeko.

Horrenbestez, eta azken kapitulu honetan adierazitako premisekin bat etorritik, estatu azpiko eskumen-esparruaren mendean dauden proposamenetan jarriko dugu arreta. Estatu-, eskualde- eta nazioarte-mailako erantzukizuna duten erakunde publikoei dagokienez, beharrezkoa da, gure iritziz, tokiko

erakundeek esparru-agenda osoaren alde egitea. Hala ere, eskumenak argitze aldera, ez ditugu orain esplizitatuko. Salbuespen hori azalduta, hona hemen gure gomendioak:

I. proposamena. *Megaproiektuen aurkako herri-mobilizazioa:*

- Megaproiektuak aztertzeko eta ezartzeko baimenik edo lizentziarik ez ematea.
- Lurraldea megaproiektuetatik babesteko estrategia publiko-sozial bat antolatzea.
- Megaproiektuei buruzko zuzeneko demokraziako esperientziak garatzea.
- Megaproiektuei aurre egiteko defentsa juridikoaren aitzindari izatea, estatuko eta nazioarteko esparruetan.
- Megaproiektuetarako inbertsioak erakartzeko laguntza publikoak kentzea.

II. proposamena. *Gobernantza global korporatiboaren aurrerapena geldiaraztea:*

- Lurraldea merkataritza- eta inbertsio-tratatuen eta inpunitatearen arkitekturaren kontra dagoen eta haietatik libre dagoen eremutat jotzea.
- Tokikoari lehentasuna ematen dion eskualdeko gobernantza baten alde egitea.

III. proposamena. *Elementu komunak defendatzea: ondasun komun eta/edo estrategikoak merkatutik kentzea:*

- Ondasun komun eta estrategikoen jabetza eta kudeaketari buruzko erreferendumak eta zuzeneko demokraziako prozesuak sustatzea.
- Zerbitzuen eta babes sozialaren sistema publikoa sendotzea, elementu komunen emantzipazioari buruzko ikuspegi batetik.
- Ondasun komunekin (ura, energia, ezagutza, osasuna, elikadura, etab.) eta ondasun estrategikoekin (finantzak, garraioa, etab.) jarduten duten enpresa eta sektoreak berrudalekotzea, baita kooperatiba mistoen eta elementu komunak babesten dituzten beste formula batzuen bidez ere.

IV. proposamena. *Goitik beherako nekazaritza-erreforma, korporazioek lurak pilatzea eragozteko:*

- Pilaketaren logikaren barruan dauden lurak desjabetzea.
- Jabetza publikoko lurraren alde egitea, guztion ongiarekin eta esperientzia komunitarioekin lotutako helburu sozialekin (lur-bankuak; gozamenean lagatzea, elikadura-subiranotasuneko eta ekonomia alternatiboko ekimenetarako; etab.).
- Hiri-antolamendurako planak eta antzekoak garatzea, espekulazioa galaraztea, elikadura- eta energia-subiranotasuna ahalbidetzea, eta lurraren eta lurzorua arteko orekari eustea.

V. proposamena. *Korporazioen zerga-saihestea eta zerga-ihesa etetea:*

- Zerga-sistema progresibo bat ezartzea (esaterako, ondasun higiezinaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergak), azalera handiko saltokiak eta enpresa handiak zergapetzeko, batik bat.
- Hobariak ezartzea guztion ongiarekin lotutako jardueren (energia-trantsizioa, hiri-hondakinak, etab.) gaineko zergetan.
- Azalera handiko saltokiei eta enpresa handiei laguntzarik, kenkaririk edo salbuespenik ez ematea.

VI. proposamena. *Zor ilegala, higuingarria eta eutsiezina ez ordaintzea:*

- Zorrari buruzko herri-ikuskapen bat sustatzea.
- Zor ilegala eta higuingarria ez ordaintzea, eta estrategia ekonomiko alternatibo bat proposatzea.

VII. proposamena. *Erosketa Publiko Sozialki Arduratsuaren aldeko apustua:*

- Gizarte-, lan- eta ingurumen-klausulak erosketa publikoko eragiketa orotan derrigorrezkoak izatea.
- Ekonomia alternatiboko eta elikadura-subiranotasuneko prozesuei (ekonomia solidarioa, ekonomia komunitarioa, herri-ekonomia, enpresa berreskuratua, etab.) lehentasuna ematea.
- Erosketa publikoaren baldintzen jarraipena egiteko eta estatuak berresteko tokiko sistema eta egitura bat ezartzea.

VIII. proposamena. *Lan-harreman duinen tokiko eta nazioarteko esparrua:*

- Udalak sustatutako zerbitzu guztietan lan-baldintzen duintasuna bermatzea, eta laneko eta beste edozein arlotako gatazkak zuzenean inplikatzeko.

XIX. proposamena. *Zainketa-lanak duintzea eta demokratizatzea:*

- Lan-erantzunkidetasuneko politikak sustatzea.
- Mendekotasun handiarekin lotutako esparruetan lan egiteko hautaketa pertsonala bideratzen duten politika publikoak sustatzea.
- Sektore pribatuak zainketen esparruan egiten duen lana duintzea eta balioestea, erosketa publiko sozialki arduratsuari dagozkion klausula sozialen bidez.
- Zainketen esparrua desmerkantilizatzea, elementu komunak defendatuz.
- Zainketei buruzko ikuspegi zabal batean oinarrituta, estrategia integralak proposatzea.

XI. proposamena. *Lurraldea, bizitzaren antolaketa alternatiboaren subjektu politiko gisa:*

- Zuzeneko demokraziaren modalitate guztien alde egitea, batik bat lurraldea eta ondasun komun edota estrategikoak defendatzeko.
- Partaidetzazko demokraziako prozesuak sustatzea, besteak beste plangintzen eta aurrekontuen kasuan.
- Tokiko ekimen eta prozesu autokudeatuetan parte hartzea, herri-boterea sortzeko ikuspegi batetik.
- Lurraldea eta bizitza babesten dituzten udalaz gaindiko sareetan parte hartzea.

XII. proposamena. *Energia-subiranotasuna, guztion ongia:*

- Energia-megaproiektuak instala daitezkeen debekatzea.
- Lurzoru publikoa lortzen ahalbidetzea, energia berriztagarrien ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko.
- Tokiko energia-ekoizpeneko esperientziak berreskuratzea.
- Erakundeek energia berriztagarriko kooperatibekin bat egitea, energia-enpresa handiak alde batera utzita.
- Hiri-hondakinak tratatzeko sistema ekologikoak ezartzea, hala nola atez ateko bilketa.
- Lehentasun politikoak berrikustea energia-subiranotasunari eta -trantsizioari buruzko gakoetan oinarritutako ikuspuntu integral batetik.

XIII. proposamena. *Zainketa, komunitatearen arreta-gunea:*

- Zainketak duintzea eta demokratizatzea helburu duten tokiko esperientzia autokudeatuak sustatzea eta babestea, zentzu zabal batean.

XIV. proposamena. *Produkzioa, guztion ongiaren aldeko lanean oinarritua:*

- Erosketa publikoaren bidez, lanean, guztion ongian, demokrazian eta iraunkortasunean oinarritutako ekonomia alternatiboko esperientziak sustatzea.
- Ekonomia alternatiboaren aldeko politika publiko integrala garatzea (guneak lagatzea; azokak, merkatu sozialak eta merkaturatze-zirkuitu laburrak sustatzea; aholku ematea; tokiko merkataritza sustatzea; etab.).

XV. proposamena. *Kontsumo txikiagoa eta arduratsua:*

- Azalera handiko saltokiak eta kontsumo masiboa sustatzen duten beste egitura batzuk mugatzea.
- Tokiko merkataritza sustatzea.

XVI. proposamena. *Banka etiko baterantz:*

- Finantziario etiko eta alternatiboko zirkuituetan aktiboki parte hartzea.

XVII. proposamena. *Komunikazioa demokratizatzea: anitza eta ez korporazioen mendekoa:*

- Komunikazio-esperientzia sozio-komunitarioak babestea, politika publiko integralen bidez.

XVIII. proposamena. *Botere korporatiboaren kontrako salaketa eta eragina:*

- Korporazioek lurraldean dituzten inpaktuak salatzeke eta zigortzeke inplikatzeko.

XIX. proposamena. *Herriko jakintzak, korporazioen eraginik gabeko bizitza baterako:*

- Botere korporatiboan eta herri-heziketan eragina duten ikerketa kritikoko esperientzia sozialak babestea.

XX. proposamena. *Botere korporatiboaren kontrako agendak eta estrategiak sustatzea:*

- Botere korporatiboa progresiboki eraisteko estrategia integral eta trantsiziozko bat planifikatzea.

c. Gomendioak mugimendu sozialentzat

Mugimendu sozialak (mugimendu komunitarioak, sindikalak eta abar barne hartzen dituen adiera zabal batean) enpresa transnazionalen kontrako borrokako parte-hartzaile nagusiak dira; orobat, zibilizazio-trantsizioaren aldeko emantzipazio-agenden aitzindariak dira. Ildo horretan, eragile estrategikoak dira, guztion ongian, herri-boterean, lanean eta iraunkortasunean oinarritutako prozesuak sustatzeari dagokionez. Aipatzekoak dira haien erresistentzia-jarduera –multinazional handien aurrean lehen lerroan baitaude– eta botere korporatiboa geldiaraziko duen erakunde-erregulazio baten aldeko eragina, baina baita emantzipazio-ikuspegi batetik alternatibak eratzeko eta ezartzeko duten ahalmena ere.

Tokiko erakundeen kasuan bezala, beharrezkotzat jotzen dugu mugimendu sozialek esparru-agendako proposamen guztiei heltzea. Dena den, haien zuzeneko jarduera-esparruetan gauzatu daitezkeen gomendioak soilik azalduko ditugu orain:

I. proposamena. *Megaproiektuen aurkako herri-mobilizazioa:*

- Megaproiektuei aurre egiteko estrategia integralak garatzea. Besteak beste, hauek hartu behar dituzte kontuan: herri-mobilizazio luzeak, zuzeneko demokraziako ariketak, tokiko eta nazioarteko esparruen arteko antolaketa, agenda anitza eta positiboa, dimentsio juridikoa eta erresilientzia-formulak.

II. proposamena. *Gobernantza global korporatiboaren aurrerapena geldiaraztea:*

- Tratatu (TISA, TTIP, TLCAN, TPP, CETA, etab.) kontrako antolaketa eta mobilizazio soziala agenda politikoaren lehentasun gisa finkatzea.

III. proposamena. *Elementu komunak defendatzea: ondasun komun eta/edo estrategikoak merkatutik kentzea:*

- Ondasun komun eta estrategikoen jabetza eta kudeaketari buruzko erreferendumak eta legegintzako herri-ekimenak sustatzea.
- Ondasun komunen auzo-kudeaketako esperientziak sustatzea.
- Ondasun komunak eta sektore estrategikoak berrudalekotzen parte hartzea, publikoa eta komunitarioa lotzen dituzten herri-botereko formulak erabiliz.

IV. proposamena. *Goitik beherako nekazaritza-erreforma, korporazioek lurak pilatzea eragozteko:*

- Pilaketaren logikaren barruan dauden lurak bakez hartzea.
- Berreskuratutako lurretan elikadura-subiranotasuneko ekimenak garatzea.
- Nekazaritza-erreformaren ildoan, elikadura-burujabetzarekin lotutako proposamenak egitea.

VI. proposamena. *Zor ilegala, higuin garria eta eutsiezina ez ordaintzea:*

- Zorraren herri-ikuskapena egiteko egitura sozialak sortzea, batez ere tokiko esparruan.
- Erakunde publikoek sustatutako herri-ikuskaritzako prozesuetan aktiboki parte hartzea.

VIII. proposamena. *Lan-harreman duinen tokiko eta nazioarteko esparrua:*

- Behetik eraturako eta gainerako mugimendu sozialekin batera antolatutako sindikalismo borrokalari bat sendotzea eta hartan inplikatzeko.
- Talde korporatibo bakoitzean negoziazio kolektibo globala proposatzea, logika internazionalista batetik abiatuta.

XIX. proposamena. *Zainketa-lanak duintzea eta demokratizatzea:*

- Lanaren ikuskera enplegutik harago zabaltzea eta ikuskera hori nabarmentzea, bizitzaren erreproduktzioarako beharrezkoak diren jarduerak guztiak bezala.

XI. proposamena. *Lurraldea, bizitzaren antolaketa alternatiboaren subjektu politiko gisa:*

- Partaidetzako demokraziako agendak eta prozesuak sustatzea plangintza sozial eta komunitarioetan, ikuspegi inklusibo batetik.
- Askotariko ekimen eta prozesu autokudeatuak garatzea, herri-boterea sortzeko ikuspegi batetik.

XII. proposamena. *Energia-subiranotasuna, guztion ongia:*

- Energia berriztagarria ekoizteko tokiko ekimenetan parte hartzea.
- Energia berriztagarriko kooperatibetan parte hartzea, energia-enpresa handiak alde batera utzita.
- Agenda politikoak formulatzea, energia-subiranotasunari eta -trantsizioari buruzko gakoetan oinarritutako ikuspuntu integral batetik.

XIII. proposamena. Zainketa, komunitatearen arreta-gunea:

- Zainketak duintzea eta demokratizatzea helburu duten tokiko esperientzia autokudeatuak babestea eta sortzea, zentzu zabal batean.

XIV. proposamena. Produkzioa, guztion ongiaren aldeko lanean oinarritua:

- Ekonomia alternatiboko formulak sustatzea, ahal dela, eremu eta egitura integral eta finkatuetarantz aurrera egiten laguntzeko.
- Ekonomia alternatiboko ekimen eta prozesuek sare-antolaketa izan dezaten laguntzea.

XV. proposamena. Kontsumo txikiagoa eta arduratsua:

- Zibilizazio-trantsizioko logika batean eta ekonomia alternatiboan oinarritutako kontsumoa sustatzea.

XVI. proposamena. Banka etiko baterantz:

- Finantziario etiko eta alternatiboko zirkuituetan aktiboki parte hartzea.

XVII. proposamena. Komunikazioa demokratizatzea: anitza eta ez korporazioen mendekoa:

- Komunikazio alternatiboko esperientzia sozio-komunitarioak era antolatuan martxan jartzea eta sustatzea.

XVIII. proposamena. Botere korporatiboaren kontrako salaketa eta eragina:

- Botere korporatiboari buruzko ikerketa-, eragin- eta sentsibilizazio-ekimenak (kanpainak, boikota, herri-auzitegiak, etab.) gauzatzea.

XIX. proposamena. Herriko jakintzak, korporazioen eraginik gabeko bizitza baterako:

- Botere korporatiboan eta herri-heziketan eragina duten ikerketa kritikoko esperientzia sozialak sustatzea.

XX. proposamena. Botere korporatiboaren kontrako agendak eta estrategiak sustatzea:

- Botere korporatiboa progresiboki eraisteko estrategia integral eta trantsiziozko bat planifikatzea.

d. Gomendioak herritarrentzat

Gehiengo sozial handiak gaur egun langile-klasea osatzen duen subjektu anitz eta askotarikoaren oinarria dira. Azken batean, subjektu hori subiranoa eta autonomoa da, zentzu komun hegemonikoak aldatzeko eta bizitza antolatzeko beste modu batzuetarantz bideratzeko. Beraz, herritar aktibo eta kritikokoak behar-beharrezkoak dira kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazkan, agenda hegemonikoaren eta agenda alternatiboen arteko borrokan.

Ildo horretan, eta erakunde publikoak esparru-agendan botere korporatiboari aurre egiteko egiten diren proposamenen alde egitera bultzatzea beharrezkoa dela kontuan hartuta, hau gomendatzen diegu herritarrei:

I. proposamena. Megaproiektuen aurkako herri-mobilizazioa:

- Megaproiektuen kontra mobilizatzea eta aktiboki parte hartzea.

II. proposamena. Gobernantza global korporatiboaren aurrerapena geldiaraztea:

- Tratatuaren (TISA, TTIP, TLCAN, TPP, CETA, etab.) kontra mobilizatzea eta antolatzea, agenda politikoaren lehentasun gisa.

III. proposamena. *Elementu komunak defendatzea: ondasun komun eta/edo estrategikoak merkatutik kentzea:*

- Ondasun komun eta estrategikoen izaera komuna defendatzea, eta horretarako mobilizatzea.

VIII. proposamena. *Lan-harreman duinen tokiko eta nazioarteko esparrua:*

- *Statu quoari* aurre egiten dioten eta beste mugimendu sozial batzuen aliatuak diren sindikatuetan parte-hartze aktiboa izatea.

XI. proposamena. *Lurraldea, bizitzaren antolaketa alternatiboaren subjektu politiko gisa:*

- Partaidetzazko demokraziako agenda eta prozesuetan eta plangintza sozial zein komunitarioetan parte hartzea, ikuspegi inklusibo batetik.
- Askotariko ekimen eta prozesu autokudeatuak garatzea, herri-boterea sortzeko ikuspegi batetik.
- Mugimendu sozial emantzipatzaileetan inplikatzeko.

XII. proposamena. *Energia-subiranotasuna, guztion ongia:*

- Energia berriztagarria ekoizteko tokiko ekimenean parte hartzea.
- Energia berriztagarriko kooperatibetan parte hartzea, energia-enpresa handiak alde batera utzita.
- Energia eta material gutxiago kontsumitzea.

XIII. proposamena. *Zainketa, komunitatearen arreta-gunea:*

- Etxeko lanen demokratizazioan parte-hartze aktiboa izatea.
- Lana balioestea eta duintzea, zentzu zabal eta inklusibo batean.

XIV. proposamena. *Produktzioa, guztion ongiaren aldeko lanean oinarritua:*

- Ekonomia alternatiboko hainbat formulatan –ahal dela esperientziatik sistema integralera igarotzen direnetan– parte hartzea.

XV. proposamena. *Kontsumo txikiagoa eta arduratsua:*

- Ahal dela azalera handiko saltokietan ez kontsumitzea, tokiko saltokien, autokudeatu eta sozialen, mesedetan.
- Ahal dela enpresa handien produktu eta zerbitzuak ez kontsumitzea; ETE-enak eta, bereziki, ekonomia solidarioko eta elikadura-subiranotasuneko erakundeak kontsumitzea.

XVI. proposamena. *Banka etiko baterantz:*

- Ahal dela merkataritzako finantza-sisteman ez parte hartzea, eta banku publikoen eta banka etikoko esperientzia sozialen alde egitea.

XVII. proposamena. *Komunikazioa demokratizatzea: anitza eta ez korporazioen mendekoa:*

- Esperientzia sozio-komunitarioetara jotzea, informazio alternatibo bila, eta haietan parte hartzea.

XVIII. proposamena. *Botere korporatiboaren kontrako salaketa eta eragina:*

- Botere korporatiboari buruzko ikerketa-, eragin- eta sentsibilizazio-ekimenei (kanpainak, boikota, herri-auzitegiak, etab.) adi egotea eta haietan parte hartzea.

XIX. proposamena. Herriko jakintzak, korporazioen eraginik gabeko bizitza baterako:

- Botere korporatiboan eta herri-heziketan eragina duten ikerketa kritikoko esperientzia sozialetan parte hartzea.

